EGUNA
JEL

Neure aberia maite dot,
eta berari aurka dagitson
edozer gorotau biar dot.
Arana Goiri

Lgo. urtia | 55'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. epaila 5'gna. barikua | 15 eunen

Sei milla abisinitar il zituezan italiarrak Addis-Abeba'n

Txekoak paxistarik nai ez.-Rumania'n gora-goraka politika -alderdiak.-Ordezkari aldaketak Alemani'n?-Amerikarak armak ugarituten.-Frantze'ko gobernua landolak beretzakotuten.

Zabalbeaskoa'taf Matilde anderaño a, abots-zoli ospetsua. Egunokaz Afiaga Antzokian Gizarte-Laguntza'ren aldez egiten diran antzezkizunetan, txalo ugariak jasoten dauz.

TANTOAK

Mutillak, an beti euzkeraz egin

Elufa mendian mara mara... dana zuri da. Gure gudaria otzan: "ez nauk bilduftzen" esanaz, an dago etsai maltzufaren aufian beti "irmo". Balak ez du ikaratzen, otzak gutxiago.

Eta, gudari, zer dala-ta gagoz, ba, onelako ezbeafak, nekeak eramaten? Zer dala ta mendiratu zera, izkilua eskuetan? Zer dala ta gurasoengandik ufutiratu; gose ta egafi izan? Zer dala ta zure odola ixuri ta bizia eman mendi baztefetan, zuretafengandik ufuti?...

"Abefia azkatzeko" da erantzuna. Fatxistak oinperatu nai gaitue betiko, euzko odola nastu, oiturak galdu ta euzkera betiko gure mendietatik uxatu. Ofegatik gaude emen, erantzungo dizue, pafe goxoa ezpain zokoetan.

卐 卐 卐

—I, Joseba, entzun al dituk gaufko goraberak? Euzkadi "ególatra" berekoia ta beste deabrukeri oiek? Bufukarako bifitan gertu beafian gaituk.

—Utzi akiak pakean! Goazen zinera.

—Mikel, euzkeltzale omen aiz... eta pozez irakufiko dek EGUNA ta aren era kutsiak, ezta?

—Bai, baño, euzkera landara emankora balitz!

Mikel ere berdin: euzkeldun gudaria izan eta erderaz gaizki egiñaz, bere burua nafastu naiago...

Lotsatu re ez! Amari zor diokana, edozeñi saldu! Gero "salidotafa" ez eizela esango dek. Baño ondo diok, ez aiz "salidotafa", ijitua baizik.

"Pepito" befiz... Josu, "Pepito"! Ori bai "Pepita"; efiko "señorita" batzuk baño erdera zaleagoa da ta gixajoa!

卐 卐 卐

Irakufle, gudari, emakume, ez al dezu olako euzkaldun epel ustelik zure inguruan arkitu, naiz ta gudan suizkilagaz ibili, edo retaguardin Euzkadi'ren alde dabiltzala esan?

Zoriontsua zu ta zure eria! Neri beñepein bat eta bestek ere, beren aufean euzkel argia pizterakoan, kanarioak gabaz esnatzen badet, egiten didana, egin didate: lumak astindu, ankatxo bat luzatu... eta lotara befiz!

Onelako oiei loaldi zoriontsu bat opa diet... ames ta guztu... eta lo zulotik noiz edo noiz esnatu ditezela beintzat.

Zuek ordea, besteok... zutik. Ernai gu ziok; zuek batez ere, gazteok, gudariak, emakumiak! Etsai maltzuf bakoitzari... mutufko bana; ama Euzkadi'ren ezaugafirik maitagafiena, euzkera.

Agife'taf Joseba Andoni, gure lendakari agurgafiak, Bilbao'ko geltokian Asturias'era zijoazen euzko gudariei esan ziena: "Mutilak, an beti euzkeraz egin."

Nik ere esango dizuet: euzkaldunok zuek ere abefia maite dezue ta ofegatik zaudete mendian izkiluak eskuetan. Euzkera ere abefia da. Beraz, zergatik mendin eta etxian, kalian eta akeitetxian euzkeraz ez egin.

Abefia ezkatua nai degu bai, baña bai euzkalduna ere. Soña gogorik gabe ustel-du egiten da, ta Euzkadi'ren gogoa euzkera da.

Beraz, "mutilak, an eta emen beti euzkeraz egin"!

O'taf I.

Jaupa batzuk

Gaur barikuz, goizeko zortziretan eta enparau beste bederatzi egunetan zortzi ta erdietan, jaupeak izango dira Pantzeska Deuna'ren ertxadonan, Sistiaga'taf Pantreska Legutiano'ko guda-oñian Abefia'ren aldez jausi zan gudari ta bere aita zanaren gogo aldez (goyan bego). Eleizkizun oneitara afen eldu daitezala daskatse sendiak senide ta enparau aizkidiei baeskafitubak izango dira.

卐 卐 卐

Ain abeftzale onak ziranak gogoratzean, geure tamal-agufa bafiztatzen dautsegu ainbat aizkide begiko doguzan sendikoei-batez be Pantzeska'ren neba-afeba Miren Bake, Kep ta Jon'eri.

"Iguna"ren URUTZIZKIÑA 17818

ORDEZKARI ALDAKETAREN BAT EGINGO ETE DABE ALEMANIA'N

Berlin.—Alemania'n ordezkari aldaketaren bat egiteko asmotan doguz antza dagonez. Aldaketa orek onuorenak izango dauz.

Aldaketa oneitan urtenena Jack Dicalcof Alemania'ko ordezkari Lateri-Batueta'n izentatzea izango dogu.

Jack Dicalcof ori Lateri-Zaingo'ko idazkari-orde dogu.

RUMANIA'N GORA-GORAKA

Bucarest. — Eskuma-alderdien eta alderdi-askaltzaleen artean asafe bizia sortzen asi yaku.

"Guardia de Hierro" paxista-batzako alderdikide ziran ikasleak Ikastola Nagusi'ko zuzendariari emon dautsezan aiztokadak-bide, asafeok biztu ta geitu, be, geitu egin dira ta alderdi biok alkafen gorototau irakiten doguz.

Nekazari-Alderdiari batez, be, mingafi izan yako paxiston nabarmenkeri lotsagaldukooi ta "Guardia de Hierro" batzakuen lafegikeriak moztu dagiezan nekazari gudari batzakoei dei egin dautse ta esnarik sagozala esan. Nazitafen goragorei ko erabagi zendeik artu dauz Gobernua'k eta asi apur bat baretuko al-dira ora

AMERIKA'N BERE ARMAK UGARITUTEN

Washington. — Itxaso guda zaingoko buru nausiak, Leaty jaunak, legetxean itzaldia egin dau, eta izkilu gayak geituteko, Lateri-Batuak 1.000 miloe dolar izentau dituela adirazi dau bafiro bere.

Lateriak aldeztuteko premiñak orixe eskatzen ei-dau, eta ofez ganera, Inglatefa'k afia guda-indar izan nai dabelako.

TXEKOAK EZ DABE PAXISTARIK NAI

Praga.—Txekoeslobakia'ren gora-beretan atzefitafak sartzerik, ez dauala Gobernua'k ezetara be laketuko ez jasango, esan dau Erbeste arazuetako ministruak.

Naciona-sozialista diralakoen zabarkunde ta ibilerak gaurgero gebenduak izango dira.

BESTE BATZUK, BE, EZ DAGOZ LO

Londres. — Apifka-Bafene'ko Lateri Batza'ko Guda Arduradunak Pretaria'n munizio ola bat ipinteko egiune bat egin dabela aitzen emon dautso Batza ofetako aldundiari. Ministro ori O. Piroa dogu.

Egiuneoi Gobernua'k eta Imperial Chemichal Industry Ltd. izenpetu dabe.

PRANTZIA'N GOBERNUA'K BERETUKO DAUZAN OLEAK

Paris.—Astearten Gobernua'k argitaldu eban oroaginduak difionez Gobernua'k egazkin gintzarako beretuko dauzan oleak oneitxek doguz: Boulogne - Billancourt'en dagozan Farman' enak, Prantzia'ko Ipafaldekoak, Monreaux'koak eta Bourges'ko Henriet'en egazkin-oleak.

ESPE EGON DAN BAT MARSELLA'RA

Paris.—Burgos'en asaldariak mofoiopean euki daben "L'Eclair" izpafingiaren izpafiari berezia askatu dabe ta Marsella'ratu da, orko izpafak difioenez.

OREIK ZUAZAN LAGUNAK:

Madrid.—Paxista batek bere adizkide bateri idatzi dautson idazti edo karta bat argitaldu dabe izpafingiak. Oneitxek difioz karta orek:

"Aita il zeunsten lenengo. Gero neure anai bi. Etxea apurtu zeunsten eta etxeoi apurtu zanean nire ama, be, antxe il zan. Abefia'ren alde zenbiltzala iñostazuenean nire afebeari nai zenduzan nabarmenkeriak egin zeuntzezan. Oraiñ aberirik bage ta sendirik bage nozue.

Zuengandik ba-nua. Zuen egazkiñak Erkal-uriburua zuritu dabe ta zuen bost egazkin Idastiegi Nagusia suagatzen ikusi nebazan, eta Marcelino Menendez Pelayo'ren antzirudia apurtu zenduen.

Miguel Cervantes'en antzirudia, be, bifindu zenduen. Zuen ankerkeri ta galtzeak ikusi dodaz; orixegaitik nua zuen taldetik igesi.

Manuel Romero'k izenpetzen dau idaztioi.

EGAZKIN-GINTZARAKO TA MUNIZIO-GIÑARAKO OLA BARIAK

Londres.—Lanik-eze lufaldeei laguntzeko asmoz, le ofeitan egazkin-gintzarako ta munizio-giñarako amaika ola-etxe egitea erabagi e'-dau Gobernua'k; Lancaster'en lau ola-etxe Eskozia'n beste lau ta Gales-Egoaldean iru egingo ei-dabez.

ARTUEMONETAN PRANTZIA TA SUEZIA

Paris. — Suezia'ko Erbeste-arazuetako Arduradun Sandler jaunari Paris' era etorteko esan eutsela aitzen emon eban astearte gabaz Prantzia'ko Erbeste-arazuetako ministroak. Alexandreta'ko auziaren bafi Lateri-Batza'n emotea yagokona Sandler jauna da ta ori Prantzia'ratzeari gafantzi aundia emoten dautse. "Le Jour" izpafingiaren abusuz Alexandreta'ko Sandler'en asmuak ez dira askok uste dabezanak.

GOIZALDEAN MADRID'GO GUDA OIÑETAN

Madrid.—Arganda guda-oiñetan lengo egunetan baiño bareago doguz; galtze aundiak izan dabez kontizu paxistok guda-oin ofetan juan diran egunetako eraso etan.

Asilo de Santa Cristina etxeen-onduan efi-aldezleak aftu eutsezan guda-toki ta guda-lubanak eurendu nai izan dabez paxistok Ciudad Universitaria'n Hospital Clinico'n dago zanentzat ofeik galtzera kaltegafi yakoe ta. Bufuka ofetan, be, nai ebenik ezdabe iortu paxistok.

Efi-aldezleak ekin eutsen gero jo ta jo ta Paxistok Puerta de Hierro aldera atzeratu ziran; ortik, be, alde beafa izan eben eta efi-aldezleak Cuesta de las Perdices inguruan guda toki bereziak eurondu ebezan.

Aspaldion izan danik erasorik aundiena paxistok atzo goizaldean Parque del Oeste'ko ur-jausi inguruan asi eben. Guda-izkiluz ta gudariz ondo ornidutа asi eben joaldioi. Gudari ta guda-gai galtzeak ugari ta besterik ezer, be, ez eben lortu paxistok. Efi-aldezleak ufatzik, be, atzera egiteka tinko eutsi eutsen.

Beste gudafiñetan gudaketa berezirik ez zan izan.

Gudari talde bat.



Berastegi'taf Miren Argiñe anderaño a, abots-zoli ospetsua. Egunokaz Afiaga Antzokian Gizarte-Laguntza'ren aldez egiten diran antzezkizunetan, txalo ugariak jasoten dauz.

ADDIS-ABEBA'N

ITALIARREN BASATIKERIAK Graziani'ri egiñaren ondoren

Gudalburu ofen ondoan egozan abisinitar guztiak berialako baten il zituezan

Londres. — Otsaila'ko emeretzigafenez, Addis-Abeba'n, Etiopia'n, Graziani'rekikoa gertatu ondoren, egundoko erailketen befi izan degu. Gizonak il, emakumeak il, aufak il. "Times" Londres'ko izpafingiak Paris'etik jaso dituan izpafak diotenez, sei mila etiopiaf il dituan gutxienez. Pizti antzodol egafiz alkandora beltzdunak eta italiaf langileak basatikeri oso-osoz il zituzten aufak.

Graziani'ren ondoan zeuden etiopiafak, eskuko bonbak lef egin zuteneko, italiaf gudariz inguratuta ikusi zituzten euren buruak. Laistef i zan bala-otsa. "Times"ek dionez, berealako batez, rifle, bonba, aizto, makil ta guztia eskuratu zieten gudari tafde ta italiaf langileai. "Joan eta nai dezuten guztia egitea zuen esku." Ofa gizonari basapiztiarena esan. Orduan, taldeok, izkiluak eskuetan, erifik-eri, etxerik-etxe, danari su emateari ekin zioten eta afapatzen zituzten guztiak iltzeari. Susmo txafeko zirala-ta atxilotuetako geienak epaia egin ondoren il egin zituztela dio gaifiera "Times"ek.

"Manchester Guardian" zpafingiak ere badakaf erailketon befi, Italiaf gudari-taldeak, oudamendia ta eriotza ereifiaz, Addis-Abeba guztia zear zabaldu ei ziran. Txabolak ere, afapatutakoak il, basapiztiarenak egiteari eman ei-zioten. Beste izpaf siñesgafi batzuk diotenez, emakume ta aufok eraso garaian bakafik il zituzten. Addis-Abeba'n negafa ta eriotza ondoren sortu ei-zan barea.

ASTURIAS'EN

Agintarien nayak bete ziran atzoko joaldietan

Iltegi zafaren orma ertzetan

ASTURIAS'KO GUDA-IZPAFAK

Gijon. — Paxiston eragozpenak besterik ez ba-lebe, onezkero lafi genduan Oviedo, Atergabeko euriteak eta txingofak bartaf guztiak basaz bete dabez ta gudariok alde guztietan eragozpena besterik ez dabe.

Adoretsu ta gogo bizitan doguz baiña efi-aldezleok. Ofein adore ta kemenak moteldu ko dauzan egualdirik ez eragozpenik ez da. Euron biotzetan daben garaipen-itxaropenak sutzen dauz; gizarte bafiaren amesak adoretsen dauz ta eurok dagien gudearen zuzenak alkartzen dauz.

Gaur, be, euriak euri ta eragozpenak eragozpen Gudari-Agintariak ebezan asmuak bete dabez. Efi-bafuan apuf bat baiño ez bada, be, aufera egin dabe. Eldu diran lekuan guda-toki-giñan naiko zeregin izan dabe. Egiten daben aurrerakada apufa balioko izatea dogu poztu beaf gaurzana.

Esia aitsi naien dogu; alperik baiño San Roque ermita ingurutik bitxabala mende dabe. Gaur menditxo ori guda-luban bafiz ta guda-tokiz ornitzen jardun dabe.

Beste guda-oiñetan, be, izan doguz ekiñaldits batzuk, baiña guda-lubanetatik urteteka jardun dabe alkafi tiroka alderdi biok.

Pusilak baiño ekiñaldi saratuagoak egin dabez guagalariak argi-unetxuetan. Ostian lañoak ezer ikusten, be, ez eben isten.

Atze-aldean toki batzuetan paxisten artean aruntz-onuntza ikusi izan da argi-alditxuetan.

Egualdiak noz onduko urduri ta gudatzeke gogotan doguz efi-aldezleok. Ostikada edafak artu beaf dabez paxistok egualdiak ondu dagiazene

Meñaka

Igandez izan dabe Martiartu gudaldeak euren ikuŕiñaren onezkundia. Egurzadi txaŕa izanaŕen alaitsu ziran mutilok. An ikusi genduzan gudalburu diran kapitanak Azturo, Galaga, Rotxil; tenlente dan Marka Arantzamendi; brigada dan, Iñaki ta intendetsi buru dan Azturo'taŕ Kepa, nere adizkideak. Gure mutilak pozik dira gudalburu oŕekin, izan be mutilak dozak oŕek gero?

Villela gudaltsalian dira gure eŕitaŕ mutilak Ateka, Zubiaur, Uŕutia, Ibaŕa abeŕtzale zintzuak.

Onek gertauta uturantza izan genduan, Laŕauri'ko "Sta. Maria" alaŕgunaren jotetxe ospetsuan. Ukaŕa-orduan alaitasun paltarik ez eguan; poza axe guda taldea alan ikustia. Arpegi alaitsu ta biotzak sendo da bezela urten dabe ila onen 2'gn. Elgeta'ra. Egualdi txaŕa eruan dabe mendira, baña biotzak sendo dabezala, auxe zan euran abestija.

Euzko-gudariak gera
Euzkadi azkatzeko,
gertuta dauko odola
bere aldez ematteko.
Irintzi bat entzun da
Goiko tontoŕjan
guazen gudari danok
Ikuŕiñau atzian

Pazistak datozala
Euzkadi'ra saŕtzen,
guazen gudari gustiak
geure Abeŕija zaintzen.

Guztija zan oza ta abestija. Zoriŕneko zuok, Jaungoikua lagun dagizuela, ta zuk Azturo ondo zaindu gauŕ zure ardurapean dozuzan gudariok.

SOLUBEPE.

Gernika

Eŕtxadonan egunoro egiten diran beŕgeikaroko eleizkisunetara, lagun asko eŕtzen da.

Bariku ta igandetan, gurutz-bidea euzkeraz egiten da eta berofi yaokan abesti samu-polita, bere bai.

Baña, gurutz bide au euzkeraz egiten dan bi egun oŕeetan, zegaitik aguŕtza deuna ta beste otoyak be, euzkeraz eztira egiten?

Elitzateke au, egokiago, bidezkoago, izango?

卐 卐 卐

Guk nai gendukena ba, ezta asko, auxe bano:

Gurutz bidea euzkeraz egitea oiturea dan astean bi egunetan, guztia euzkeraz egin daiteala: au da, aguŕtza deuna euzkeraz, eta Ogi-deunaren otoyak bere, euzkeraz.

卐 卐 卐

Guda-oñetik idazkazal begiko bat artu neban, aurtemin.

Aintxiñatxutiko adizkide dodan Uŕutia taŕ Josu'rena zan berau, eta benetako atsegiñez artu ta irakuŕi nebala, zetan esanik eztago

Uŕutia abeŕkidea, neure adin ingurukoa da (nire uliak azpaldi dira zuri-urdiñak) eta oraiñ oget urte eta geyago dirala, Gernika'tik bai euzkeraz eta bai erderaz maiz idazten ebana.

¡Neure eskontza izpaŕa be, berak emon eban ba-ta!...

Gud-oñetan da ibilteko, osasuntsu eta adoretsu aurkitzen al-aut, mutil. eta benetan onek poztuten nayok!

卐 卐 卐

Orain urte bi inguru, etzenduen irakuŕi izpaŕingietan, muxikaŕ bat ebilela ontzi txiki baten saŕtu eta bera bakaŕik Ameriketarako osterea egiteko gertakizunetan.

Bai, eztaŕ

Ba, orixe dozue Uŕutia'taŕ Josu, nire idazkazala guda-oñetik idatzi daustana.

卐 卐 卐

Euzko Langileen Saleroski Elkaŕgoa (coperatibia) asi yaku lanean.

Baŕikuan egin eban lenengo jak-anantzea, eta edeŕto egin bere. Oŕ efeskadetan axe-otz eta iñetasi aŕtean ibilita baño, bereŕiago etxeŕatu genduzan oriyo, lentexa, suku-bedaŕ eta gozokiok.

Astion bananduko ei-dauskuez, ganera akeita, urdai azpiko eta eztakit nik zer tzuk geyago!

卐 卐 卐

Bere ama maite zaŕa, gexorik dagoala ta, emen aguŕtau gendun igandian Komadira eta Aŕibaltzaga'taŕ Eukeni, eres-ira kasle eta loreskinlaria, azpaldiko urteetan Bilbo'n bizi dana.

卐 卐 卐

Igandean geure aŕtian izan zan Goitia'taŕ Kelestin, Euzkadi-Lendakaritzan otsein dagoan, adizkide ona be.

Beltz Adidu

BILBAO'KO izparringijak diñuena

"Euzkadi"

"Euzkera aldez" ixenpurututen dau lenengo idazlana, ta Mediorlegi'taŕ Maren'an ixenpetuten dau.

Aran-Goiri'taŕ Sabin'ak iŕintzi zolija axeratubaz "euzkotaŕen abeŕtja Euzkadi zala" esan ebenian, Euzkadi'ren eskubidiak loŕtuteko euzkereak eban gaŕantzija ondo ezagututen ebala, diño.

Euzko-Alderdi Jeltzalia irasi ebanak, gorago idatzi diran leŕuetan diñoguna esan eban unetik gaizkatuta geratu ixan zirala diño Euzkadi ta euzkotaŕen izkuntza zaŕa.

Laŕazabal'go ziña ixan ei zan Euzkadi abeŕjaren beŕiragitzeari eutsiko eutsan ja soñaren eustari sendua.

Sabin'ak, Euzkadi-aldez iñarduteko euzkereak daukan aldiña ikusiki, ordurafte ezekijan euzkerea ikasi egin eban, eta ira kasle ixaŕaño eldu.

Eta ilŕamuban aurkitzen zan euzkerea, Euzkadi'ren abenda elia, beŕbiztuta jaŕi eban.

Sabin'ak irakatsijei yaokezanak ei-dira ixan be. "Euzkadi"ren "Euzkerea-Atala"; "Euzkadi"ren semia dan EGUNA, ta gauŕ Bilbao'n argitaltzen diran izpaŕingirik geyenetan argitaltzen diran euzkerazko iŕakurgayak be.

"Tierra Vasca"

"La lección de la guerra." Olantxe ixenpurututen dau izpaŕingi onek lenengo idazlana.

Gauza negaŕgaŕi askoren aŕtian, onuragarija dan zeozer be guda onek ekaŕi ei dau: Euzkadi ezagututeko bidia.

Gentza-aldijan enparauko eŕi gustijen eredu agertuten dan eŕi au, gudaldijan iñora urtetako gauza eztzala aurkiŕuko zala uste ixan daben asko bixi ei dira, ba.

Gixaldi onetan bixi diran askok. Euzkadi'ren edestija ezagututen ez dabelako, euzkotaŕen abeŕi zoragaŕi onek ixan dabezan gurenda ta ospiak ilumbian euŕki ixan e-lauz.

Orain, baŕiz, guda au bide dala, Euzkadi'ren edestijarentzat ertsiia egon ixan diran begijoik, osuan zabaldu ei dira. ta Euzkadi'k gentza-aldirako ixan daben trebetasuna berbera dabela gudaldirako be, itsurik itsubenak ikusi dabela geiuten dau.

Gentza-aldijan otzan-otzanak ziranak, gudaldijan abeŕijaren deya entzun ixan dabenian, euzkotaŕ gustijak igiiu ixan dira: aŕantzaliak, lugiñak, artzañak, ikasliak, ¡euzkotaŕ gustijak!... ¡Gentzaldijan otzana ixaten dakijan euzkotaŕak, gudaldijan gudari trebe ta kementsuba ixaten jakiten dau.

"Lan-Deya"

"Salario familiar. Legislación social en Francia." Ixenpuru bi oneik gaitzat, aŕtuta idazten dau "Yon Kimu" idazliak bere lenengo idazlana.

Eta sendi lantsaŕijak lenengo sustraya France'n ixan ebala, diño, 193- gko. epala 11'garreneko lagi-bidez senootuta jaŕi zala-ta.

Beraz, France'k, Belgika'k baño lenago jaŕi e-eban sendi-lantsari ori

1918'garen urtian be, ordainpide kutxa batzuk jaŕi ei-ebezan, France'n. Eta kutxa areik egundoko onespena ixan e-eben.

France ta Belgika'n iŕasi ixan diran sendi lantsaŕ-erak ikusita dagozan-ezkero, arazo beroŕetzaz Euzkadi'n zer egin leiken itandu baño lenago, beste idazlan bat argitalduko dabela diño.

"Euzkadi Roja"

"¡Justicia!" ixenpurututen dau onek lenengo idazlana.

Eta gudan aurkitzen garala aztu baŕik erabiliko biaŕ dan zuzuntsari dei-dagijonaz batera, salata-obena bide dala gauŕ opapian jaŕiko uranentzat lagidijak esaten daben zigora eskatzen dau.

Salatarijei, "espia" ixenaz ezagututen doguzanen salakuntza-bidez suagatuba ixan zala uste dau Bilbao. Eta ori dala-ta eskatzen ei dau salatarijentzat gudaldijan lagidijak ixentetan daben zuzutsa.

"El Liberal"

Asturias'ko guda-izpaŕak betetan dau lenengo ingoski osua.

Guda izpaŕ-iragaŕkijak, ertz batetik bestera eldutcu diran izki aundidun lefo luzietan agertuten dauz.

Erkal-gudarijak Oviedo'ra baŕuratubaz duazala diño. "Puerta Nueva Alta"-aldetik igiiu e-diran, eta "Cementerio Viejo" edo ildegi zaŕaiten inguru birako etxiakaz-eta jabetu dirala, diño.

San Claudio deritxuen guda tokijakaz jabetuteko ta buŕuka gogoŕak asi e-abez.

Gurendea, baña, eŕkaldaŕena ixango dala uste dau.

"El Noticiero Bilbaino"

Gipuzkoa ta Araba'ko guda oñetako izpaŕak argitaltzen dauz lenengo ingoskijan.

Eŕi aldezle suagalarijen lana goraldu ten dau.

Txindurri eta Goikomendi, paxiotaŕen gud-asijak, eŕi aldezlien suagak deuzestuta jaŕi e-ebezan.

Otxandiano-aldetik be gure suagalarijak, eu-entxubak egin e-ebezan.

Cestaŕ-a Naŕaŕete, beñepein, edeŕto astindu e-ebezan, ta guda-oin-arean aurkitzen ziran paxiotaŕai kaltial-kalte egin.

Paxiotaŕ egazkin batzuk ingurubak ikuskatuten etoŕita edo, biraka aundijak egin e-bezan. Suaga berunbilik ez ei-eben bota oŕatiño.

Ordez, baña, ingi txikitxubak jaurti ei e-ebezan, paxiotaŕen zabalgundia egiteko asmoz iraŕitako ingitxubak. Ingi areikaz gurenda gitxi irabaziko ei-dabe, baña.

ERRIEN ARTEAN

Frantze ta Inglateŕa adizkide ta alkaŕi laguntzen.-Frantze indartsu ta eskuartetsu izateko beaŕeko ei da. - Beste izpaŕak.

Londres.—Londres'ko Prantzia'ren Ordezkaritza'n diru-aftuemone- ardŭradun danaren bidez Ingelateŕa'ki Diru-Kutxa'ko Zuzendaritza'k Prantzia'ko Gobernua'ri idazti bat bialdu dautso. Idazki oŕetan Ingelateŕa'ko Gobernua'k laŕialdi onetan Blum'en Gobernua'ri lagunduko dautsola adierazoten dau.

Hitler ilebete inguruan zain egonda ta Prantzia ta Ingelateŕa'k'in arazo astunik arakatzeka ta oŕeik bialdu eutsezan galdera be erantzuteka. Jakin dau ori Ingelateŕa'k. Von Ribbentrop'ek Halifax'ekin eta Eden'ekin izan dabezan baŕiketaldiak eta Von Neurath'ek Viena'n izan dabezanak yakuz goian esan dogunaren agerbide.

Hitler'en ixilik egotea ta arazuak atzeraatzea, Prantzia diru kontuetan laŕi, be, laŕi ibili beaŕa dabela ta ondatu agiñean ibiliko dala uste izan daŭelako. Hitler'ek izan dogu. Laŕi aldi ta ondamendi oŕek Prantzia'n naste sakonak sortuko ebezala ta aldi baterako Prantzia luŕ jota geratuko zala uste eban Hitler'ek eta ori olan izan ezkero Prantzia'k Europa'ko gobeeaun ez eban izango zer-ikusirik.

Oŕa zelan jakin izan dabezan Ingelateŕa'k Hitler'en asmuak. Prantzia'ko politikoak Lateŕ-aŕteko nasteak eragoztaŕen alkaŕtzeak artega dauke Hitler.

Alemania'ko Diru-aŕtuemon eta arazoen zuzendari ta arduradun dan Schacht jauna, Prantzia'k beste lateŕietan dabezan aŕtzekoak nundik edo andik gitxiu naiean ibili da Europa'ko Diru etxeetan. Prantzia'ren aŕtzekuok eta Prantzia zan eben uste ona lateŕi oŕeitan galdu ostean Alemania'k jakingo eban Prantzia'ri nundik agiñak ezaŕi.

Prantzia'ren diru-uŕialdioi ta laŕioi bide Prantzia'ren aldetik koloniak loztzeko ustea euki dau Alemania'k; koloniak biurtzera oŕen eŕukaŕi eguala beaŕtu egingo eben Prantzia.

Gudate Lagusia'n Apirka'n galdu eba zan kolonien-truka Prantzia'ri bakea eskintekotan genduan Hitler. Schacht'ek eta berofen laguntzale Kuhmann'ek Prantzia'k Alemania'ri Madagascar emotea bein baiño geiagotan aitatu dabe.

Prantzia eskuartetsu ta indaŕtsu izatea beaŕeko da Europa'ko goraberetan lateŕi indaŕtsu-untzo agertu daiten eta Europa'ko arazuetan zerikusi izan dagian.

Prantzia Lateŕi-baŕuko autuetan saŕtzeka. Ingelateŕa Prantzia'ri laguntzeko gertu dago diru-goibeei euren senean Prantzia'k eutsi daikioen. Oindiño oraintsu Prantza'k bere kezkak izan ebazanareu, Ingelateŕa'ko Diru-Etxeak asko lagundu eutsen Prantzia'ri 40 miloi libra esterlina zoŕetan lortu izan nai ebazanean. Orain baiña zoŕetan diŕurik ezin eskatu daikezerekin erantzun ez dau'a ta.

Prankoaren bal'oa apuŕtxu bat gitxitu aldi baterako ta Prantzia'ko Diru-Etxe'ko uŕcei balio baŕia olan emonik, miloi batzuk pranko lortu daikez Prantzia'ko diru-kutxa utsak betetako. Orixe dogu Blum'ek diru-uŕialdi onetan daben urtepide bakaŕa.

Ingelateŕa bera, be, sozialistak agintari ziranean eta sozialisten diru-arazuetako jokereak poŕot egin ebanean Prantzia orain baizen laŕi egon zan eta laŕi oŕetatik Stanley Baldwin'ek eta Ramsay Mac Donald'ek biok alkaŕtuta atara eben Ingelateŕa.

Prantzia'k berak jakingo dau zer egin eta Ingelateŕa'k ezertau saŕtzeko asmorik ez dauka.

Elorio.

"Gabekua"

Elorio'tik Bilbao'ra Legoŕburu'taŕ Bingen bijotz-adizkidieri aguŕ beŕua oleŕkaŕtiak dagi.

Iŕargi iŕunak
Bere izpi liŕiñakaz
Goi-mendijetako
Eduŕ zurija dargi.
Guztiz otza gaba,
Eduŕa baxen otza;
Noxian-bain

Axiaren negaŕ-otsa
Datoŕkit aguŕtzera.
¡Gabeko bakaŕtasuna!
Otsail-gabak
Gauza eskutuben
Jaubo nagusijak..
¡Zein zuri daukazuzan
Mendijak,
Mendijak eta atxak!

¡Gaba dan ixiltzale!
Berakin gogua ixilik dago
Ixillk eta gogalduten!
¡Gaba, eduŕa; iŕargija!
Ordubak igazka duaz.
Geld-geldika igaz
Eŕimin ereñaz...
Goyetan eduŕa.

Atsekabia eranan!
Odei baltz batea,
Ikatza baxen baltza,
Iŕargi betiaren
Patxu leunak
Ostu eustazan.
¡Axiaren negaŕ-otsa

Lotan dago araneko
Aŕte igaŕ baten...!
¡Zein itxalak
Otsail-gabak
Iŕargijaren izpi barik!
Eduŕ-mataŕak juŕerantz...
Eduŕ garbija neuganuntz...
¡Gaba dan ixiltzale!

K.taŕ J. I. M.

Elorio.

¡¡Aguŕ, ama!!

"Dana emon biaŕ yako
Maŕe dan azkatasunari."

Lauaxeta.

Ageska duaz egunak. Goiz bat da. Ondiño uŕun, gustiz uŕun, oskaŕbijan, goizko ixaŕ argija ikusten da. Ostapian baŕiz uŕetxindoŕa dabil poz-pozik txoŕo-txijoka; areiztijetan axe biguna jolasian. Oŕtzia dagon oztin!

Apuŕ bat geruago Intxoŕta-ostetik eguzkija uŕteten da, ta laŕua uŕatzen dau; bere uŕe-iiztiraka argitzen dabela, bialdijetako bakalduŕi da, mendi-baztel bateko basetxe gentzatsuba. Ango poza! Ango gentza-maŕasuna...!

Baña euzko-mendi galuŕetan guda-iŕintzi zoŕotza entzun da. Eta.., oi ene! guda-otz ori ara be eltzen da!

Oraiñ, oraiñ apuŕtzen da basetxiaren zoŕijona: ogetabat uŕteko mutil leŕden-eŕimia bixida beŕton, eta au tamala! gudari juan bial da.

Baña mutil au, bere amaren seme bijotz-kutuna, alaj dago, baŕeiŕija bere ezpan goŕijetan dabela. Pozik dago, ta alai-be-alai, gura dau gudara juatia, bada be-laki euzko-anayen eta bere aldiñagaz, ainbeste maiatzen daben Abeŕija, Euzkadi, bere bijotz baŕu-baŕuko Euzkadi edeŕ-laztana, azkatuba ixango zala!

Olan ba, juaten da bere amatxugana, emoten dautso mosu beroŕbero bat, eta aguŕ, maŕasun-aguŕa egin ondoren, aldenduten da andik...!

Bere bijotzak, daunbada-daunbada dabilan bijotzak diñotso: "Ikusiko dozuz baŕiro zure ama laztana ta basetxe au?" Eta berak, eztabaida baŕik, diño: "Bai, bai orixe: bixi ba'naz ¿etoŕi ez ba ostera?; eta iliten ba'naabe... donokiŕik ikusiko dodaz".

Bitxidoŕaren bidebilkunea aŕtueran, eta bere ama basatxe-atarijan ikustiagaz, diadaŕka: "Aguŕ ama—diñotso—, ikusi aŕte!!" Amaren eraŕtzuna oztaozta entzuten da axe bigun-aŕtian.

Ama gaxua atarijan geratzenda negaŕ-zotjnka, zapi bategaz negaŕ-tantak legoŕtzen. Bere onduan txakuŕ atezaintzale bikaña dauko ausiko. Anboto-galuŕetik eguzkija ostendu da. Udalaitz-ostetik laño mia agiri da. Ixilik dago gustija, ta noxian-bain entzuten diŕa gau-txoŕijaren txijo eŕlatzak eta txakuŕ bat-edo-besten ausijak: iŕun dago basetxia, ta gudarijaren ama atzekabez uŕturjk, eztauko semerik! ¡Amaren bijotz-samiña!

AŔATS-BERAN.

Elorio'tik.



ZENAZURA'KO KONBENTU ZAŔA

Euzkera ta gudariak

Ba'dakigu, arerioak "facistak", euzkerari dioten gofotoa.

Egunetan ori bera naikoa genduke euzkera alde jokatzeko. Pazista'k nai ez dutena, aufkalariak lez, euzkera zale, geure-geurea degunez azaldu beaŕ genduke.

Jakin, ezeŕ poztutzen ba'gaitu, guda oñetik datozen izpaŕak dirala euzkeraz, euzkeraz idatziaz baldin ba'dira.

Burura datoŕkit au:

¿Zer aŕpegi jaŕtzen ote dute gure eŕi-maite inguruan diran falangista ta rekete aŕteko, mairubeltz, aleman edo doixtaŕ eta italitaŕak, gudaŕjak "parapetotatik" euzkeraz itz egiten diotenean?

Masaiekorik aundiena, orduan aŕtuko dutela nik uste; "morteroen" eta baño eŕe sutots gaŕatzagoa.

Ala ez ba'litz bere, geure abendaren, aberiaren eŕe goxo, edeŕ-edeŕ degulako, maite eta itz egin beaŕ genduke, batez eŕe Abeŕi-Euzkadi'ren alde, "pazistaŕen" aurka guda oñean eruai eta tinko zeraŕen gudariok.

Bai, anaiak. Mintzatu gaitezen euzkeraz, geuretzat ezaugaŕirik edeŕ eta bereziena degu eta.

Au, —uŕun beaŕ bada—an gure etxetxo basetxean jaŕdun oi giñan euzkeraz jardun dezagula, gaur ere.

Neskatiŕa'ri itz goxoak esan naian gerala, eŕderara joten degula ikusten dot, eta oso eŕez geurea baztertu eta aizeŕia goraltzen degula eŕa oretan.

Euzkera degun goxoaren goxo; samuŕaren ¡samuŕ bigunaren bigun.., eta baztertu!

Gudariok! Euzkera mendian, "parapetoan", eta euzkera txaide-kalean, geure izkuntza euzkera degu eta.

Gudariak eta euzkera gogoratzean, au Asturias zeaŕ ditugun anaiak, gogoŕa datoŕtzkit batean.

Agindua betetzeaŕen, agindupean, etxeak eta euzko luŕak utzi, ta aruntz juanak ditugu ainbat.

Eta onek bai, etxetik uŕun, etxera ames, nolatan buruan eraŕiliko eta etxeko iizak, euzkeraraz itz eginaz.

"Eguzki" idazle anaiak, ezaugaŕi euzkera zutela Asturias alde aŕtan, esaten zuan idazlan batean. Euzko-iŕiñña eta euzkera aikaŕekin zirala.

Zoritxaŕez il zaigun Saseta ospetsuaren azken itzak, bere, au Asturias zeaŕ, euzkeraz izan zirala digute.

Euzkerarekin Abeŕia bat batean daraŕilkigu ta bata maite duanak, bestea maite beaŕ.

卐 卐 卐

"Eguna" ontan ikusten degunez, mutikuaŕ gudaŕak "kanpoi" euzkera gaietan. Eurok ainbat euzkel-idazki ez du iñoŕk azaltzen beñepein. Txalo bero bat merezi dutela, ara nerea:

Batetik "Gurutz-Ondo",
bestetik "Kai-alde",
Andonegi Kuireka,
"Andoni" baita ere,
Euzkeraz idazleak
"Ametzak" zaitu ametz
Ta EGUNA'n bai dezu
"Mendi-Alain" bat aur
Aguŕ, mutrikuafok
Jatoŕak zerate.
Zuek euzkel-laneak
Lenen zalantz gabe.

IXAKA.

Euzko-Langile gudarostea. Bermeo.

ATZERRIKO IZPARRAK

Moro geyago oraindik Malaga'ra

Izkillu geitzeak dirala-ta.-Berlin'en urunik ez ta patata sustarekaz ogia egin bear.-Koipe barria.-Eden eta Ribbentrop.-Arabitarak gudaritza beartua jariko ete?-Egiptotarak gasen aurka gertuten.-Beste izparak.

MORUAK DAKAREZ ORAIN BE

Cordoba. — Ceuta'tik etozan 2.500 moro Malaga'ratu ziran. Moro ofeik mietsunak beteteko asmoz edo erakarri dabez. Granada'n paxistak dabezan guda-oiñetan guda-toki ta gudariok ikusten izan zan Queipo de Llano.

ZEIÑEK BAIÑO ZEIÑEK GUDA IZKILU-GEIAGO EGINGOKA

Roma.—Ingelandar izparingiak Paxista-Batza-Nagusia'n artu daben izkilu-geitzeko-asmoa izkiluz o do ornidutako ta ornitzeka dagozan laterien arteko gudearenantzo etsi dabe. "Giurnale d'Italia„'k diñonez. Emetik aurez guda-izkilu gitxitzea ames uts dala esan dabela paxista-batza oretan eta "Thimes„'ek gauzak, etorkizuna itun ikusten dau.

Paxistak esan daben orek etorkizunik ez dau argitzen ez iluntzean "Giurnale„'k diñonez; itz oreik zer jazoten dau darakaskue ta zer jazo daiken oraingo senean ba-guaz.

Sir Samuel Hoare ez al-da be—diño "Giurnale„'k—beste guztiak baiño len Inglaterra guda-izkiluz ornidu gurarik yabilkuna?

Inglaterra-edu izan gura dauala ez al dau, ba, aitzen emon Ipar-Amerika'k? Eta Amerika ori lerak egiten dogu guda-izkiluz ornitzeko diru-batzen.

Guda-izkiluak gitxitu bearra dala diotse Laterri eskuartetsu biok besteei ta eurok guda-izkilu euron buruak ornidu ta ornidu yabilkuz. Guda-izkiluok gitxitu egin bear diralа-ta gitxitzen asitakoan gudontzi ta kañojok burdin-zar-pilora jaurtzekotan ete-dabiltz?

OGIA EGITEKO

Berlin.—Ogiari eunetiko amar patata-sustar, kaseina ta artirin sartzeko baimene eman yake ogikiñai.

EGIPTO'KO BAKALDUNARI AGURKA

Marsella. — Suiza'ko portu ontata erdu da Egipto'ko bakalduna eta ministru, konsul eta fran-zetar aundikiak agurka irten diote bidera. Oiekin batera atera ziran egiptar aundiki, Frantze'ko be-alde, Suiza eta Italia'n dauden egiptotar delegau batza. Agurik sutsu ta aferarik begikoena egin zioten bakaldunari.

KOIPE BERIA

Berlin. — Koipe'rik uritu ez dedin, Alemania'n asa-koipea egingo dute. Ollo antzeko zuria da ta margarina baiño egokiagoa. Alaren olioa batu edo gogortuaz egiten da Koipe ori.

ALKARI BA DAOKA EDEN ETA RIBBENTROP

Londres.—Aldundi Nagusia'n Eden jaunak egin, daben itzaldien Inglaterra'k beronen ardurapean eta gindupean dagon lurralderik iñori ez dautsela emongo esan dau. Itz oreik Alemania'ren Ordezkari Inglaterra'n dan von Ribbentrop'ek Leipzig'en egin eban itzaldiaren erantzun etsi dabez askok. "Times„'en abaraz itzaldiko berbarik pozgarienak Inglaterra'ko izkilu-geitzea izkiluak gustiak gitxita dagiezan bide izango dala adierazoten dabenak dira.

GUDALETXE TA GUDARIAK AN, BE

Jerusalem.—Yemen Laterian arabiar izparingiak diñoenez gudaritza beartua ipiñiko dabe apurka-apurka. Gudaletxe-gintzarako diruketak onartu dabez.



OVIEDO'KO IRU ARGAZKI





EUREN BURUAK GORDE DAGIE ZAN ARIZKUA ELDU DAITENEAN

El Cairo.—Egazkiñen eta laspelen bilduñez eta zer etorri-enean Egipto, be, egazkiñetatik eta laspel edo gasetatik igesi yabilku. Egipto'ko ikastoletan ajzo-xar eta laspelak zer egiten daben irakatsi ta norbere buruak zelan gorde, be, irakatsiko yakoe. Arizkua eldu daitenean eritarej emoteko laspelen-aurkako arpegi-estalkiak egingo dabez.

GUDA-IZKILUAK GEITZEKO ASMOZ

Washington. — Inglaterra'k-bezenbat guda-izkilu izan nai dauz Ipar-Amerika'k, be. Itxas-guduako tresna ta gaiak lortzeko ta egiteko 5.800 miloi dolaren eskabidea Aldundiratu dabe. Diru eralgite orein-gain gudarostearenak doguz. Gudarostearentzat 100.000 miloi dolaretan bear izango ei dira.

NI, BE, BA-NOK I BESTE-DIÑOTSE LATERIAK ALKARI

Roma.—Italia'ren guda-izkilu geitzeari buruz italiar izparingiak geitze ori bear-bareko dala diñoe beste lateriak, be, oretantxe diñarduela-ta. "Stampa" egunerokoak Italia'k, be, bere aginpidez ta izkiluz besteak baiño gitxiago izaterik ez dabela nai diño ta beste lateriak izkiluz orniduagotzen diñarduela-ta Italia'k, be, ornidu bearra dauala diño. Bere burua zaintzekor izkiluz orniduago ta egiñagaz bakeari eutsi egiten ei dautso Inglaterra'k be, orixe diño bakearen dagiala, baiña bere eskuarte zabalari eustearen eta zabalaga egitearen ei dabil.

ERRI-EPAITEGIA'N

Atzo goizean asi zuten salatarien auzia. Salatari batzuk ari-mataza edera dute aldean.-Somonte'ren aurpegi-narua itxas -lakatza baiño ere latzagoa da.

Atzo asi zuten salatariarekiko auzia. Oraingoan ere ari-mataza edera arildu bearean dira epaileak.

Espinosa'tar Joseba jauna gendun mai-buru.

Mazora ta Lanbari jauna eskef-eskubi.

Iñuritegi jauna auzi-aztertzaile.

Urizar'dar Leon, Saenz'dar Josu, Lariaga ta Rugama jauna aldezle -itzlari.

Leopoldo R. Sobrino jauna Epai-maiko idazkari.

Epaiteratutako salatarien ondoetan ertzaiñak.

Epai-aretoa ikus-miraz betela.

Auzi aurekoa

Auzi-arteztzaileak irakuri ta irakuri.

Lenengo. Bilbao'n salatari aldra Emen aurekoak dira salatariok eta lotsagabekeriz jardun dute euren azki-lanetan.

Ondoren salatarien idazki batzuk irakuri zituan.

Bigarren. Salatariok iruzur egin dute eta Guda-Zuzentza'ko Araudiak dionez, erudun dira.

Irugarren. 8, 9, 10, 11, 48, 53, 54, 55 eta 56 zenbakidun oriak irakurtzea eskatzen det.

Auzia

Mai-burua salatariai galdezka asten da. Arturo Garcia Suarez'eri lenengo.

Itxargorako izentatuta etori zala Madrid'etik Bilbao'ra esan zuan epaiperatuak mai-buruari erantzunaz. Falangetar taldetako buru iñoiz ez dala izan, naiz ta bazkide dana egia izan. Markina'n eta Lekeitio'n artu-emanetarako biderik ez duala erabili eragertu zuan.

Somonte'ren lagun zala gaiñeratu zuan, baiña, arek bialdutako ta orain arapatutako idazki-agiriai, ez diela egundo ardurarik eman.

—Idazki-agiriak diotenez, Donostia'ratzekotan ziñan zu, zeure asmoak aldeztera—esan zion lendakari jaunak.

—Ez, jauna. Egia da Donostia'ra joan nai izan nuana, baiña ango lana galdu ta irabazpiderik ez galtzearen zan ori, lagunen lepotik beti bizitzea ere dala egoki ta.

—Ez ziñan egoten zu Emilio Diego Somonte'rekin akeitetxean?

—Ez, jauna. Beti diru-eske zebilkidalako, asaretu egin nintzan.

—Eta, idazki-agiriok ez zizkitzun erekin-saltoki baten eskuratu?

—Bai, jauna.

(Agerpen agiria irakuri zuten ondoren.)

Manuel Diego Somonte

Salatarietan buru nagusia. Ogeitazortzi urteduna, Legutiano'tar, salaroslea.

Erekin-saltoki emakumea oraintsu sei ilabete ezagutu ei-zuan. Erekin erostera joaten ara ta garantzi gabeak zirala ango berriketaldiak, esan zuan.

—Eta nondik zekigun zuk emakume ori eskubitara zana?—galdetu zion Espinosa jaunak.

—Izketan zituan itxurak.

—Erekin-saltokian ez zizuten Arturo Garcia aurkeztu?

—Bai, aurkeztu zidaten. Donostia'rako asmotan zala esan zidan.

Buru txarekoa dala-ta ez duala gauza aundirik gomutan, gaiñeratu zuan epaiperatuak. Garcia kin-eta erabili zuan eskuartekoa dirua lortzeko baiño ez zala izan.

—Eta zuk izan dituzun planoak zeure buruz egiñak dira?

—Nik ez dek planorik egin. Planoak badira oiek... Marazki batzuk baiño ez ditut nik egin. (Mutil onek duan izkera. Lotsagaberen bat da, zoroa bestela! batala beste.)

—Eta... "Socorro Blanco" ori, zer da?

—Ori? Neure buruz sortutakoa. "Miña" bat aurkitu nualakoan nengoan. Orekin erekin-saltokikoai patrikak arintzea uzte nuan.

—Zer saldu izan dezu zuk?

—Idazki-txarteletatik asi ta motorak arteraiñoko guztia.

Dirua lortzea izaten ei-zan bere "ametsa".

—Zure goraberak idatzi izan dituzu?

—Bai, jauna, gauza asko idatzi izan ditut nik, tentelkeria ugari.

Fidel Santalo Jimenez

Emezortzi urteduna, bilbotara, ikaslea. Somonte'ren suiña. Somonte ezkertara zalako uztea ei-zuan beti. Naspil onen beririk ez duala.

Mikel Bascon Martinez

Ogeitamabost urteduna, landuna. Malaga'koa.

Somonte'ren lagun dala Construtora Naval'eko idazkoletan lanean alkar ezagutu zutenetik. Aren arazoaren beririk ez duala ta berari ez diola iñoiz Somonte'k gauza oietako idazki-agiririk eskuratu?

Amalia Gonzalez Iglesias

Henao kaleko erekin-saltokiko emakumea, ogeitamasei urteduna. Somonte ta Garcia sari joaten zitaizkiola baiña izketan danen aurean jardun oi zutela. Somonte'k, orratio, politika-arazoan tarteko sartu-erazo nai ziola baiña berak ezetzkoa erantzun.

—Donostia'ra agiri batzuk bialtzeko ez zigun esan zuk Somonte'ri norbait bilatzeko?

—Ez nik.

Zubizareta'tar Miren Kurutz

Ogeitazortzi urteduna, donostiara, Bilbao'n bizi dana. Oraintsu bederatzi-amar urtetik ezaguna du Somonte. Au zori larian zegola ta bizibiderik lortuko ba'zuan, motor batzuk saltzeko bidea iriki zizkiola esan zuan.

—Hendaya'n dauden motor batzuk saltzeko biderik ez zenion iriki?

—Ez; mugan motor batzuk daudela bakarik esan zion.

—Motorok Gobernuari ez eskuratzeko alegiñetan ez ziogun lagundu?

—Ez nik.

Erekin-saltokira gauza batzuk erostera zala joaten gaiñeratu zuan epaiperatuak.

—Ez ziguten Mola keneralaren dei bat aurkitu?

—Ez, jauna. Nere ingi artean orelakorik egon zezakeanik ez dakit nik beintzat.

—Eta Falange-Eresia?

—Neure gogotxu bat. Lagun bateri ikusi nion eta neure eskuz beste bat egiteko eskatu nion.

—Gogoan daukazu nor zan lagun ori?

—Ez, jauna.

Aratsaldeko lau ta erdietan jaraitu eban bariro auziak.

Aratsaldeko jardunean Iñuritegi' tar Kerman piskalak ekin eban bere lanean. Jakintsu, sakon eta zoli.

Sayo onetan Agiregoitia'tar Peli, Bascon'dar Mikel, Lezameta'tar Joseba Mirena, Santalo'tar Pidel eta Merino'ren aurkako salakuntzea bastartu egin eban, bestientzako eukanari eutsiaz.

Epayak gaur jaraituko dau

ALTZAKO EUZKO GUDARIEN TXABOLATIK

(Jarajpena)

¿Zer pazatzentzaik goizian dabaneko orela jarita?

M.—¡Ay "Kutartxo", ¿zer dala uzte dek au geyegiskuena ala aldadiena?

K.—Etzakiat ba or ikastendiaten kantimplora edo txismiori gerritikan txintxilik utza dagola emotendik.

M.—Bai zer o zeren biarra izan gaya salta parapeto edo coje requetes zulu oretan zartuta egoteskeo.

K.—Onetan iritxi gera gure baserira eta ezeri ondoren emen datof gure Maritxu bere bi eskuetan akeita esne eta ogi zatibana arturik gure inguruta, bañan gure Mikel onek ikusi du iltze batetik sintzilik gure satotxua eta bera arturik ondo trauzka bat egitendu eta nik au ikusirik ezaten diot gure Maritxu'ri bi lukainka mutur ipintzeko eta beriala ekartzen ditu, ura Mikel'en begiratuta, beriala lanian azten da eta esaten du, arañua orela jateagatik egongo niokek urte betian kalera jetxigabe, au oratik geyegi dek gozaitarako, orelako lukainka mutura eta ondoren baldoka bat akeita esne, "bestela ere requetiak jangoitek oreja etxiak gaizki.

Bueno Mikel onezkero gure Muxika, teniente jauna aurki emendek eta bera etori bañan lenago guazemak bezteja arpegi sofotiarekin begiratuko ziguk.

M.—Bai bai bera ere oretarako obiago dek lukainka gori eta neska muzu gorik dauden tokijan ezeri aldi edarak egiten diskit.

K.—Cay nedoni ere igariya niok, oraintxe mutil zartzen aridek bañan, oraingotik uzte dit zerbait egingo dula gure nezkatik dan Maritxo'rekin.

Agur ba "Kutartxo, Agur Mikel eta naidekenian beste bueltatxobat egin.

M.—Bai bai etorikonauk.

Altza aldian bizizan
aita eta amarekin
andre gaba izateko
asmo osoarekin.
Bañan orain erindute
gure teniente,
makinatxobat gaztek
itz egiten diote.
Aztefikan ba'daude
zeinbat neska gazte
oyetakonbat izango da
Antxon zure emazte.

Ermita ere inguruan
tokatu zai zute
gudaren bukaerako
zagatu zaitezte.

Gaurko azki degu ta
lantegi onetatik
"Kutartxo„'n agur bat artu
Kalamendi aldetik.

KUTARTXO.

Españar gudea erbestean

Toledo inguruetan erepublikarak

"New York Herald Tribune"ren izparak

TOLEDO INGURUBIRAN ERIZALEAK

Madrid.—Erizaleok Toledo'n sartu diraja bariren bari, esan dabe Gobernu aldeko batzokietan. Erizaleak uri oretatik alde egin bear izan ebela bost ilabete da.

Agindariak, ordea, paxistekin erkaldarak gogor be gogora izan dabela burukea esan dabe, bañan Toledo'n sartu diranik ez dabe egiztau.

Toledo'ko bariirik ez ekiela esan eutsen Miaja keneralak izparkariei.

"Claridad" izparingiak, alabaña, uri artara erizaleak sartu egin dirala diño, paxistak uri kanpo aldeko auzunean izan dituen artileri tresnak gaindituaz. Auzune ori, dirudianez, Los Cigarrales da.

Tajo zear igaro diraja españar erizaleak be, ba-diñoe, eta Talavera ondoan diarduela, paxisten gudasail ugari bai-da emen.

Arerioak artileria ekin dautsa Madrid'en kaltez, euri eta lañoa gorabera, eta etxe gain jausi bai-ziran suagak ilak eta zaurituak izan ziran eritar zeien artean.

Jarama aldean, lengo egoeran dira oraiarte.

Morata eta La Marañosa'rako bideak augi nayaz jardun dabe paxistak, bañan eurok ajtortu dabenez, atzerantz egin beara izan dabe.

Argentina'ko eta Polonia'ko ordezkaritza etxietan egon diran babestuak ezetariko okef barik atera dira etxietatik

NASKALDIJA

PAXIOTAREN ASMUAK

Salamanca'ko ifadotsak paxiotaren izparak edatuten dauz.

Eta izpar ofeik, alan biar be-ta, euren erara atonduten dauz, eta eurak gura daben lez edatu be.

卐 卐 卐

Paxiotaren ifadotsak egiten daben zabalgunderik aundijena, onetarakoxe egiten dabe: euren guzurezko abertzaletasunari berez ez daukan indara emoteko.

Españar paxiotaren abertzaletasuna, berein naste-bostegaz osotutako abertzaletasuna da, ba, ta besterik ez.

卐 卐 卐

Abertzaliak dirala diñue. Eta euren zabalgundietan, abertzale-ixena erabilten dabe erabili be.

Paxiotaren abertzaletasuna itzezko abertzaletasuna da, baña, ta besterik ez. Eurak, ba, abertzaliak dirala diñue. Euren egiñenak, ostera, beste gauzarik dirala esaten dauskube: aberi-ausliak dirala

卐 卐 卐

Españar abertzaliak dirala diñuen berein naste bostegaz matazatuta dirala, españarai gudea egiteko, atzerritarakin batu ixan dirala, ludi gustijak dakijana da. Eta atzerritarak egiten dautsen laguntasuna ordainduteko España'ren lurralderik aberatsenak Italia ta Alemani'ri saldu ixan dautsezana be, gustijak dakijena da. Egintza ofeik diñuenez, ba, españar paxiotaren abertzaletasuna, guzurezko abertzaletasuna da. Españar abertzaletzako ofeik: abertzale barik, aberi-ausle agertuten dira. Ondiño txarago: aberi-saltzale lez agertuten dira, ba.

卐 卐 卐

Alan be, baña, Salamanca'k ifadotsak edatu dabenentz, berein naste-bostegaz osotuten dan paxiotar gastedija, batzar orokor baten batzartu ei-da, ta bertan artu ixan dabezan erabagijakaz, españar abertzale-buru nagosijekana zuzendu ei-dira. Eta buru nagosi arei, eskakixun auxe egin ixan ei-dautse:

Eurak, paxiotar gastedijak, gurenda-aldez iñarduko dirala. Eta aberijak biar dauan gentzea lortu dagijenian, erijaren eretxija agertuko dauan auteskunde bat egitia eskatuten dabela.

Auteskunde ori, Erkal-aldezkua ixango ba'litz, Erkala jariko ei-litzake. Erkal ori, bariz, neurri-baruban, neurtitik urten barik ibiljko litzakena ixango ei-litzake.

卐 卐 卐

Erkala'ren ordez, egingo litzaken eri-eretxijak Bakala eskatuko ba'leu, baña, Bakala jariko ei-litzake. Eta erijak eskatuten daben bakala be, erijar ixango ei-litzake: askaltzalia.

卐 卐 卐

Azkenez, baña, erj-eretxijak eskatuten dabena, Paxiua ixango ba'litz España-laterija, Paxiua ixango ei-litzake. Eta au, erj-eretxijaren gurarija be alantxe dala-ta, gogora be gogora ixango ei-litzake, bere paxio-makilapian España gustija txitik be egin barik eukiko jeukena.

卐 卐 卐

Ora, of, irakurle, Salamanca'ko paxiotarak edatuten dabezan izpar bakanak.

Eurak, berein naste-bostegaz osotu ixen diran gastedijak, españar abertzaletasunaren aldez iñarduko dirala; gudea irabazten dabenian, eta gentzea lortu, erijari autarkiz bere eretxija eskatuko dautsoela; erijak eskatuten daben Jaurlaritza-erea jariko dala; Erkala eskatzen ba-dau, Erkala; Bakala eskatzen ba-dau, Bakala; eta Paxiua eskatzen ba-dau, Paxiua.

Eta Euzkadi'k azkatasuna eskatuko ba'leuskijue, "¡azkatasuna!"— ¿zer dala-ta getu ez, ba..? Izpar bakanak edatuteko-ta, Salamanca'ko paxiotarek mutilak dira gero..

"ESKUTITZ AGIRIA"

Ixenpurutzak agertuten dan lerro ori, atzoko EGUNA'n agertu zan.

Eta "eskutitz agiri" orregaz EGUNA'ko artezkari jaunagana zuzenduten zanak, olantxe ixenpetu eban bere eskutitza: "Gipuzkoa'ar ifat entzule bat".

卐 卐 卐

Eskutitz agiri orretan eskatuten ebana, bariz, auxe ixan zan: Bilbao'ko ifadotsa Donostia'n oso ondo entzuten dala, bai, ta gipuzkeraz mintzatuko dan "speaker" bat gustijz biarkua dala.

Gipuzkoar baten eskakixunari, ondo deritxagu. Norberarentzat ez dana, iñorentzat be ez da, ba. Eta gipuzkoar ori, gipuzkoara dalako, gipuzkera-zale agertuten da. Eta gipuzkera-zale agertuten dalako, Bilbao'ko ifadotsetik be, gipuzkerea edatu gura dau. Ederto dago.

Bizkai'ko itxasertz bateko eri txikitxu baten, karabiñeru bi ei-egozan. Eskondu bak ei-ziran, eta gurasuak be bai.

Erderearen apurik be ez ekijen bizkaiaren aitian bixi ziran aren be, baña, euzkerarik ez ei-ekijen. Gaztelarak ziran, ba, atzerritarak.

卐 卐 卐

Igande baten, baña, eriko ertxadonara juatia otu yaken, Eta txaunburubak, ¡jakiña!, euzkerazko txonitza oguzi eban.

Eta atzerritar karabineruak, euzkerazko txonitza asi zanian, gaztelerazkua ez dan txonitzik ebela entzun gura-ta, kanpora urten ei-ziran.

卐 卐 卐

Jaupeq amaiu zanian, eta txaunburuba etxeratu zala jakin, gaztelar karabineru bijak, txaunburubaren etxera zuzendu ei-ziran, eta asaire-masaieka, eskakixun auxe egin: eurak españarak zirala, bai, ta españeraz oguziiako txonitza entzuteko eskubidia ebela. Eta-eskubide ori egiztura jari zedijantzat, andik aurera, eurentzat gaztelar bijentzat, erderazko txonitza jai gustijetan egin biarko ebala.

Gaztelar areik be, euren gaztela-zaletasunak igitu ebazan, eta eskakixun a egiten be, gaztela-zaletasunak imiñi.

卐 卐 卐

Ikusten danentz, ba. Bizkai'ra etoften diran gustiak agertuten dabe euren zaletasun berezija.

Euren lurraldietako ixakera berezijei zaletasuna ez dautsanik, Bizkai'ra ez da ondiño iñor etori.

Gaztela'tik etori ixan diranak, bizkaiaren izkerearen ganetik, eurena jari ixan dabe, Eta bizkaiarena ikasteko gurariik txikijenik be ez dabe iñoz agertu ixan.

Eta gipuzkoar gure anaya maiiakin be, bardin jazoten yaku: ementxe geure artian bizi diran aldijan be, gure izkuntzea entzun baño, euren izkuntzea entzun gurago ixaten dabe.

Bizkaiara ixatia, zoritxarik zoritxarena, ¿ez ete-da, irakurle...?

Erbestetik datozala, nai auzotik etori, besuak zabalik artu ixan diran etxeko izkuntzea baztartubaz, eurak ekafi ixan dabena erabili gura...

Eta gu, bizkaiar bakun gixagaxuak, etxera yatorkuzanen izkuntzea ondo jakin ezaren euren erara mintzatuten aleginduko gara. ¡Eta jakiña! Ez jakintzat artu, ta iri egiten dauskube.

GUDA-ARGAZKIAK

¡SASETA'RI!

Zoaz, zoaz, Saseta zoaz pozik zerura
Artutzera irabazi dezun jauregia...
Baña noizik noizera begiratu mundura...
Emen daukazu zeure Euzko-Aberia...

Non dira zure zelai ta mendi euzkaldunak?
Zure elizatxu ta etxe margo zuridunak?
Zure txorien abesti goxo ta legunak?
Ostu deuztez betiko zeure ufuntasunak?

Ufun oso ufun atzerik lur ertzean
Mila bederatzireun ogeitamasaspiren urtean.
Otsalaren azkenetan guda, bizi gogorean,
Il zera erbestian mendi galufean.

Izanik euzkaldunak, ufuntasunean,
Saseta eben euzko-gudariak beren aurean,
Ta ikusirik egola il-otzik lurean,
¡Ai, ze samiña eukien biotz barenean.

Indara ta adorea baturik benetan
Ikusi geinkez orain mutilon zañetan,
Begira nola eriotza zitala eskuetan
Arturik, sartzen daben gorputz etsaletan.

Ta eztauke biotzetan mutilok bildurik,
Ez, ez. Beuke bilduta etsajak bakarik!
Euzkotar gudariak Saseta'rekin pozturik,
Egin zuten alegin guztia azaurturik.

Zuruntasunen poza da maitetasuna,
Emen, ta emendik urun, biotz euzkalduna,
Oriakotxia ziñan zu gudari kutuna,
Betiko sortu zaizu bai ufuntasuna.

Il yaku, euzkotarak, il yaku Saseta argia,
Il da geure ondasuna, il da gudaria,
Il da jakiturizko ituri garbi-garbia,
Il da betirako utzirik gure Aberia.

Zoaz bai, zoaz Jauna'ren jauregira,
Ondo irabazia dezun zeruen erdira,
Jauna'rekin batera aren lur oni begira,
Eta zorion ta pakea jaufti utzi dezun etira.

ANDONEGI'TAR KUIREKA.



Kokotxak xaltxan

Rusia'ko guda ontziak onuntz datozela, atzoko izparingiak diote, aldanian "blokeo" edo traste ortaz, ezer ikusirik gabe.

Datozala zorionian, "blokeo edo kontrol" ori begira egon bearian, orlako bat obeago degu ta.

Noski, zerbait egitera etortzeko baldin bada, Doixtar ta italiarakin burukara alegia, ez emengo itxasertzeko erlak ikustera bakarik.

Rusitar abek gogor ekinten ba'diote, ikusiko dezue beste gañerakoak, nola dantzatuko diran.

Ordun bai ordun ixtilu gorlak batzuentzat.

Abek asten ba'dira beria egiten ¡askoren prakak ez dira lasai izango!

卐 卐 卐

"Gudari" aldizkingi biurtuta, larunbatian irtengo dala izparak dira. Euzkotarari dagokion "Xanto" edefik ekafiko digu.

Ekafiko digula diogu, esku onetan bai dabil aldizkingi onen arazoa.

"Xanto" az gañera bai euzkerazko idazki ta jakingai ederak ere, ¡mutil ona dek oren ardura duna, edozer eran euzkera baztartzeko!

Aditzera degunez, ziur egokia ta benetan apaña, orain irtengo dan "Gudari" aldizkingia, Euzko Jel Alderdiari dagokion erakoa.

¡Betor zorionian "Gudari" aldizkingia, aspaldi nabaitzen genuen utsunea betetzea datorkigu ta.

卐 卐 卐

¿Asturias'en zer gertatu dan?, zea betikua, españatarak beti españar dirala. Ta euzkotarari dioten maitasuna, Cruz Salido digun añakoa dala.

¿E, ez dezula ulertzen?

Oren kaikua bazera, urengo batean itzengingo degu, euria geldltzen danian edo.

卐 卐 卐

Antzerki jaletan asiak gera, naiz ta ontan ere, naiko eragozpen izan.

Antzokia irixten, ta batez ere antzoki jai orduak ez dira guk nai bezela. Antzoki guzjak Gizarte Laguntza'ren babespean daudelarik, ojetara jo bear, ta of ez degu bear añako lasaitasunik.

Euzkel-antzokia gatik diote, ez beste "Los Clavales" ta erdalkeri oik antzeteko, of dabiltzan oik, badute guk baño azkatasun ta, erextasun geigo.

Euzkel-antzerkiak ez du auferapen aundirik egingo, gai au, ain egoki dagokio Gogo Lantze Zaingoak, bere gain artzen ez duen bitartian.

Aldi bat izan degu, Zaingo au ortaratu ta "Teatro Nacional Vasco" jariko zala esan zan garaia! gure poza! baña ez degu aspaldian, beri oren astarenik ez degu.

¿Nork ukatu "Teatro Nacional Vasco" au, bear bearekua ez dala?

Guziak noski, ta batez ere, aspaldi lan ontan buru ta belari sartuta gabiltzanak, ta asmo aberkoi ori noiz iritxiko dan ametzetan geranak.

Orain egiten ez bada, sekulan izan dan aldirik bikañena galtzia litzake, ta au ezaguturik, tamala litzake txit tamala oraingo era ez artziea.

¿"Teatro Nacional Vasco" au egingo ote da ba?

Emen Bilbao'n diran ainbeste antzoki eder ikusita, egin bear noski.

¿Ez da ala Gogo Lantzea Zaingoa'ko Buru diran euzkotar euzkeldun azkarak?

"Barensoro" zintzoa, langile azaldu zaigu "Uztaro" euzkel-liburua orain argitaldu digu beintzat.

Ederki "Barensoro" ederki, orlako lanak gure euzkerak lagun onak ditu.

Orlako liburuaz batera! euzkel-antzerkiak argitalduko ba'lira!

Guda onetan arkitzen diran ainbat ta ainbat gaiaz, ¡zer nolako antzerkiak idatzi leikean!

Era guzitakoak, maitekorak, aberkoiak, gudakorak, ifitsuak, baña ¿euzkeraz e?, erderazkoak azalduko dira noski ta.

¡Ez al ditugu euzkeldunak, guda onen beri bertako gaiak erabili gabe utziko!

¡Antzerkia begitik ain ederki sartzen dan gauza izanik, ez alda orlakorik gertatuko. Ara "Teatro Nacional Vasco" gertuta ba'litz sendo indartu leikean arazoa.

ATARENE.

ESKERRIK ASKO, AMA

(Ipuya) II

(Dafai)

Ordua da mutilak, gora! esan zun Fotxek eta guda-zelaira abiyatu ziran euskaldun guda-mutilak ere. An zijoan gure Xixto ere ixil, goibel. An urutian aitzen ziran doixtaren ixkilu-otsak eta beren deak eta kafaxiak; zerbait urutiago doixtar zaldien ostiko otsak. Eskui aldean Paris uria zekusten eta uri aundi ura zaitzen bezela, Eiffel izenakin ezagutzen dan dore ospetsua.

Aufera! ots-egin zun Fotx'ek eta laisterketa baten ondoren doixtar gudalari-talde aundi ta ugari baten aurean zeuden gure Xixto, Joxepe ta beste bost mila euskaldunak. Gixajoak!

—Ene ama Kontxesi, ene afebatxoak ene Landeta, ene Mirentxu...! zion bere barnean gure Xixtok Eta bat-batera bulaf gañean zeukan Karmen'go gutunaz oroitu zan; eta bafutik atera ta muxu bero bat emanaz, Ama maitea, esan zion. Karmen'go Ama biguña, nere ama Kontxesi'k esan bezela, zaindu nazazu, uxatu nire etsai gaiztoak...! Zerbait geyago ere esaten jardun zion Xixto'k eta jaraitzera zijoanian, Fotx'en ots garatzak gudaketa asitzera zijoala adierazi zion. Eta orduntxe bertan asi zan gure gudari ta doixtar gudarien arteko burruka bilduigarija. Puum...! goitik eta deadara betik. Zart! eskefetik eta kafaxi eskui aldetik. Odola ugari batean, negar-malkoak bestean... Deara, alaraua, oyu itunak baizik etzan entzuten zelai artan. Eriotza zebilen erlegin bat bezela gudari artean. Ai, ene ama...! esan da, antxe erori zan gure Xixto'ren lagun Joxepe gixajoa ere, ta erori zan tokitik etzan jeiki geiago. Berak eurenean esan bezela, beste mundura jun zan; antxe izan zan bere azken ordua. Gixajoa! Ta Xixto? Landeta'ko mofoskoa ere il ote zan? Ez, etzan il; an zebilen doixtar ilegori begi-urdin aundi batzuekin burukan. Alde guzietan puum! ixkilu-otsak baizik etzitun aditzen. Xisto gixajoak: eta esan zeikean, doixtar guztiak bera il nairik zebiltzela. Baño Xixto'k gogorki erantzuten zien gizon ile-gorriei; beti zutik, beti bulartsu, tiroakin ezin zuena, ixkilu-kirtenakin eratxitzen zuan lurera.

Doixtar asko bialdu zitun beste mundura Landeta baserriko mofoskoak. Ta berak mifik ere etzuen aftu burruka gogor ortan. Azkenez gudaketa edo burukaldi ura doixtarak galdu zuten. Gudu-zelaya milaka gorputz ilez beterik zegon, gorputz-il geyenak doixtar ile-gorrienak ziran. Fotx'tarak irabazi zuten beraz gudaketa ura, nere ustez, Landeta'ko Xixto'k, bera izan baitzan gudarirjk bikañena.

Gudaketa au zala ta etzala, amaikatxo negar eta otoi egin zan Ustaritz'eko eleiz nausian. Egunero jetxitzen zan ama Kontxesi meza entzutera, ta egunero eskatzen zion Karmen'go Ama'ri bere Xixto bizirik atera zediia gudaketa artan.

Berdin egiten zuen Landeta'ko Mirentxu'k ere. Xixto'ren afeba maiteak beriz Ardimendiko baselizatxoan amaikatxo otoitz bigun egin dute guda ori dala ta eztala. Jaunak ordia ezin eduki beti negafez Landeta-Olaetako andre-alabak eta noizbait ekafi zien poza ere. Goiz baten idazki-banakariak idazki bat eraman zun Landeta'raño, zabaldu zuen ama Kontxesi'k eta... afen poza! Xixto'rena zan. Deitu zion Oletako Mirentxu'ri ere ta guztiak batera, pozaren pozaz, negafez asi ziran. "Adizazute zer dion" esan da, gutuna irakurten asi zan ama Kontxesi.

"Parjs 1918'gngo. Irala'ren 19'an. Zubiri'tar Kontxesi. Landeta'ren alarguna Ustaritz-Landeta. Ene amatxo kutuna ta afeba maiteak: Eranegun izan gendun gudaketan, garaile izan gera, doixtarak igesi dijoaz. Zauririk bat ere ez det. Laster naiz Landeta'n. Goramtzi ta eskumin asko Mirentxu'ri ta zuri, ama Kontxesi, ama kutuna, laztan bero bero batekin agur egiten dizu zure seme Xixto'k."

Au irakurfiaz batera negar malkoak zijoazten guztien arpegietan beera. Ura poza!

BARBIN.

(Urengoan azkena.)

Aragoi'ko guda oñetan

Generalitat'ko Guda-Zaingoa'n emon dabezan guda-izparak oneitxek doguz:

"Askaso gudari-taldeen guda-oiñetan iru palankista etori yakuz gure aldera.

Poum-aldean suagalariak alkar suagatzen Tiers inguruan, besterik ez.

Carlos Marx gudari-taldeen guda-oiñetan gudari bat etori yaku guda-oiñetara.

Beste guda-oiñetan lengo senean."

Oraindik! Berlín'en 250.000 judatar dagoz

Berlin.—Oraindik orain argitaldu daben zenbaketa edo estadistika batek agertzen dauanez, Berlin'en 250.000 judatar bizi dira.

Eurotatik askok, 150.000 euren siniskera zarean iraun diraue; 40.000 bat biurtuak djra, eta beste berogei mila inguru abenda bitariko gurasoen seme dira.

¡BEJONDEIKALA "ZULO"!

Nere lagun zar "Zulo,,'k gaur digu
bertso beritan ayazi
emazte eta iru aurtxoak
Deba'n zituela utzi
bera etori zan Donostia'tik
faxista gandik igesi
olen menpean une batean
bizitzea ezin etzi
gure antzera an utzirikan
etxe lanteya ta guzi.

Emazte eta bere aurtxoak
beti ditu oldozgari
bere lenengo bertso lan oiek
berari dizka opari
aspalditikan ire oldozpenak
zer ziran dizkit igari
sendia dala ta azalduaiz
oraingoan olerkari
ortik jaraitu au izan dedin
iretzat atsegingari.

Agur aspaldiko lagun zintzo
agur "Zulo" lagun ona
ora "Atarene,,'k biotz biotzez
leial opa nai dikena
Jaunari ezker ire sendiak
badik sendo osasuna
naiz aldi txafak igaro bear
orixe dek gaur lenena
ara juateko ¡al biar balitz
zoragarizko eguna!

ATARENE.

AZKATASUN MIÑAK

Schiller'en "Don Carlos" antzerkia antzeztutean txalots zaratatsua Berlin'en.-Zegaitik ete?

Berlin.—Ralph Barnes izparkariak, idazki auxe bialdu dautsa bere izparingiari:

"Berlin'go gizon ikasiak, pilaka elduten dira gau oneitan Deutsches antzokira.

Schiller'en "Don Carlos" antzerkia bariro antzeztuten dabe, ta bera ikusi naiaz batera, euren bafuko gurari eta zafadi bizitza-dardara emon nayaz, antzerkia ikusita beste barik joaten dira drama ori ikustera.

Schiller'en lan ofen guna, España'n, Felipe II efegearen aldikoa, XVI'garen gizaldikoa da.

Bigafen ekitaldiko amafgafen ageraldian, Marqués de Posa'k, efege-semearen adizkide gaztea berau, españar efegeari esle ta otoi dagio "inquisición" dalakoa kendu dagian.

Marqués ofek egunero esaten dituan dramako itzak onexek dira:

"Europa'ko efege gustiak, España'ren izenari gorasafe egiten dautse. España da be biderakusle Europar efegiak. Zeure idaztortzaren zafastada bat, eta lufa, bafiro irazan oi da. Oldozmenaren azkatasuna eskefi egiguzula eskatzen dautzut."

Joan dan larunbatez, drama ori lenengoz agertu ebenean, eta bart bafiro bejendea txaloketa gaitzean asi zan, antzezlariak azkenengo itz ofeik esan ta batera.

Txaloketa ofek minutu batzuk iraun eben, eta arean be, antzerki-arauz itzak indafik ez daben unean, eta antzezlariak jardun bikafik ez dauan garaiz.

TAJO ALDEAN

Toledo'ko guda-ekiñaldiak

Madrid.—Taljo Egoaldean gogof gudatzen dira.

Toledo ustu dabe ta gudariak besterik ez da geratu.

Egoaldeko guda-oiñetan alderdi askotatik joten dabe efi-aldezkak.

Bañan, azalpena argi da. Efiari bere gurariak garbiro agertuten nazitar agindriak ez dautse ezetara be lagaten, eta efiak bere gogoa agertuteko eta asmoak azalduteko ereti eta abaguna edefa aurkitu dau antzezlariaren itz ofeitan, eta biotzaren zafadak txalo bufundaraz agertu ditu: "gogokera eta oldozmen azkatasuna".

Deutsche teatroan jazo dana agertu eziñik estu dabiltz aleman izparingiak.

Nazitafen izparingi nagusiak onela diño: txaloak Marqués'aren jarduna dagian antzezlariaren jas eta azkatasunari jo eutsezan. ("Voelkische Beobachter".)

"Der Angriff"ek, ostera, marquesak eskatu dauan "oldozmen azkatasuna" efiak bere buruari opa dautsan azkatasuna dala diño, eta Reich'eri batuten lagaten ez dautsen Txekoeslobakia'ko aleman minoriaen auziari buruzkoa bai'litzan azaldu dau.

Izparingi onek, gerotxoago, auxe dakaf: "Don Carlos" idatzi eta andik urtietara, Schiller'ek "filosofia liberal" dalakoa ezereztzat jo ei eban. Idazle ofek bere gaztezaroan oldozkera ori ontzat artuaz, marqués antzeznotiñaren bitartez azaldu eban.

"Euguna"ren 17818 URUTIZKIÑA

ANDIK ETA EMENDIK

Madrid'en auŕerarik ez paxistak

"Ez-sartzeko" batzordean alkar aitu eziñik.-Mussolini'k 300 zaintzalle ditu. Paxisten erpepetik igesi.-Rhenania'n katolikoen kaltez.-Italia'n salerosketa -itxasontziak geituaz.-Guda araupean Brasil'en.-Beste izpaŕak.

"EZ SAŔTZEKO BATZORDEAN" ALKAŔ AŔTU EZIÑIK

Londres. — "Ez saŕtzeko Batzordean" ...tu diran alka-aŕtu eziñen eta ezta... ...den baŕi batzuk ba doguz.

Gora-gorok une batzuetan bizi-biziak ...an genduzan; alemandaŕ ordezkariak ...ntza'ko mugea zaintzeko 130 zainke... ...dezkariren ordez 160 beaŕ zirala iño... Portugal'ko mugea zaintzeko be 160 ...gandaŕ ikuskaŕi izentatu zirala ta.

...lia'k Mediterraneo aldea zaintzeko... egola Atlantiko-alderdia zaintzeko ...en esan eban eta eskabide oŕek, be, ...aldia sutsuak sortu ebazan.

...pokiaŕen eta erbestetaŕ terzloen au... be, aixetu zan eta oŕe: buruz eritxi ...o azaldu ziran

...rbestetaŕ gogozko gudariŕik España'... ...an erbestetu daikela, Franco'ren al... ...dabiltzan moruak eta terziuak euren ...tara atzera ez biurtzekotan. Oŕeik eu... ...erietara biurtzeka beste gogozko eŕ...etaŕ gudariak erbestetzen asi ezkero ...aŕ eta alemandaŕak terzioko egingo ...kez.

MUSSOLINI'K BERA ZAINDU DAGIEN 300 ZAINTZALE

Londres. — "News Chronicle" izpaŕin ...k Mussolini'k beroi zaindu dagien 300 ...zale daukazala diño.

Roma-onduan Terminillo ikertzen Mus...lini izan zanean ango ifist-lariak ara... ...ran gizon-taldeari mira eginda egon ...ran.

Zoŕunik be, danak ezin ziran egon eta asko Mussolini'ren ondorik uazan, bere zaintzaleak ziran kontuzu.

Beste etxeren bat ikusten edo zerbaiten askundera duanean, be, talde aundia ondoren yuaako.

Zaintzale oŕeik Italia'ri 543.000 libra kostetan yakoz urtearen buruan.

Zaintzale oŕez gaiñera "Los mosqueteros negros" izeneko baltz jantzitako zaintzaleak dauz.

PAXISTEN ERPEPETIK IGESI

Bayona. — Coruña'tik datozan izpaŕak paxisten ankerkerien eta zigoŕen bilduŕez iges egin naj eben amabost miñeru atxilotu dabezala diñue.

España'ko Aldundia'n Legegintza-Batzorde'ko lendakari izan zan aldun edo diputadu sozialista bat dogu.

Zein zigoŕ izango dabenik edo zer egin dautsenik ez dakigu.

GUDA ARAUZEAN DOGUZ BRASIL'EN

Riojaneiro.—Guda-arauzean doguz Brasil'en eta Gobernu buruak oroagin beintzat guda-araupean jaŕaituko dabe.

MITIN BATEN BUŔUKEAK

Belgrado. — Mitin bat egiten ziñardue nean eta bat itzaldia egiten egoanaŕte asaŕe ta buŕuka batzuk izan ziran.

"Bera paxistakeria!", diadarka jardun eben norbaitzuk. Zauritu batzuk, be, izan ziran eta batzuk atxilotu egin ebezan.

GINEBRA'REN AURKA ERASOKA

Berlin. — Izpaŕingietan Latei-Batza'ren aurka egundokoak diñoez; batza oŕeik au zi asko ezin erabagi izan dauzala diñoe.

ITALIA'N SALEROSKETA ITXASONTZIAK GEITUAZ

Hamburgo.—Itxas-arazuei buruz jardun oi daben aldizkingi baten Italia'k Franco gudalburuai amaŕ itxasontzi erosi dau tsozala diño. Itxasontzi oneik Barcelona'ko itxasontzi batza izenge batenak ei-dira.

Matxinadea sortu zanean italiaŕ portuetan egozan eta Mussolini'k beretzat aŕtu ebazan; diru apuŕ bat emon eban gero euron ordez bidez jaube egiten zala adierazoteaŕen.

Franco diru-beaŕizanak jo eban eta Franco'ren laŕialdio-bide Mussolini'k eskutik egin dautso.

Itxasontzi oŕeitako langileak Seyilla'ra eruan ebezan gero.

RHENANIA'N KATOLIKOEN KALTEZ

Paris.—Alemandaŕak katolikoen kaltez batez be, Rhenania'n zital diñardue. Kalera ezin atara daike abade ta lekaiderik, ateraten baidia egundoko nabarmenkeriak entzun beaŕ izaten dabez-ta.

BELBIL-OLEAN OPOŔA

Londres.—"Rolls Royce" belbil-oletan langile guztiak opoŕa asi dabe.



Paris'en, aurten izango dan Erakuske ta'rako gertakizunak darabilez. Eureta iko bat Sena ibaya ziartuten dauan zubi au-zabaldutia da.

IZPARRINGIAK IRAKURTEN

Madrid, batzuk uste daben aŕiskuan eztago. Gogozko gudariak bialtzia galerazo zan lenengo egunari agur pozkorik ez.

Londres.—Madrid'eko guda-oñetako ...esari buruz "News Chronicle,,'k ...unon Bartlet idazlearen artikulo bat ...gitaldu eban otsalaren 22'garenez.

Iruzur eta atzipe asko jasan ondo... ...n erbesteko gudariak España'ra ...an joan izatea ezaŕi dan egiune poz ...di barik igazi dabe Madrid uriaren ...dazleak. Usteak ustel amaika bidar ...an ba-litue!

Kontrola ere utskeria izango ez ete ...an bildur dira eŕizale españaŕak. Pa...isten aldera, kontrola zeatz ezaŕi or... ...ako. aleman eta italiaŕ ugari elduko ...a ete diran, sinisgogoŕ dagoz.

Alabaña, Madrid eta Valencia baŕi... ...n ikustean, aŕituta lotu garа gober...nak daukazan gudari eta gizon tal... ...ak ikusiaz.

Erepublikazalien guda-esiak ikusi di... ...bt gaur, eta urilean Madrid'etik alde ...in nebanean gudari artean ez euken ...ta eta esangintasuna suma ditut ...gaur.

Gudarien jokaera eta jasa ditue ...rin emengo mutillak, eurotatik asko ...urkotaŕak. Donostia eta Irun zain...ten jardun ebenak.

Gu'aletxietan ikusi ditut gudari ...anak euren sayoak egiten gazte ar... ...ko, eta egundoko alegiñak egiten di... ...tue

MIAJA'REKIN IZKETAN

Lurpe dagon gudaletxean agurtu neban bart Miaja kenerala; leku onetatik guda ekitaldiak arteztu daikez egazkiñen jazak gorabera.

Pusil eta izkilazkar geyagoz, beste 25.000 gizon gertu ipiñi leyezala, esan euskun.

Paxistak, tanke, suagakari eta gudari ikasiak ugari dituena ba-dakigu, eta ganeko astietan erkaldaŕ gobernua estu artu leyela be bai. Batez be, petroleo ugari daukela, edo.

Guadalajara'tik Madrid'era bidea etenda egoala be, esan eben. Ogetalau orduan ibili naiz beribilez Alcala zear, eta an inguruan artilleriaren otsik be ez neban suma.

MADRID, BATZUK USTE DABEN AŔISKUAN EZTAGO

Madrid'en sartuko diran ala ez, eztaki iñok oindiño. Kontrola bete aŕen be, aste batzuk joango dira gauzak dendunera jo arte. Aspaldiotan paxistak izan dabe askotaz be, aŕotz geyago, eta euron alde dago balantza.

Paxisten aldean iru bidar geyago atzeŕitaŕik dago, aŕizaliekin baño, nere ustez. Uŕengo astean eŕizale gobernuak eta eŕiaren lotsak izango dabe zer egin astunik.

Urtik lagun asko aterazi bearko ditue, eta orniketa arloak obeto antolatu. Politika ta guda-kontrola zeatzago erabili bearko. Ori egin ezkero eta oŕela iraun, garaitza eŕizaliena izango da, ziur-ziuŕ. Españaŕ eŕia gobernuaz dagola len baño argiago ikusi dot.

Guda idaztiak

Euzkadi'ko Jaurlaritza'k argitalduta "Documentos de la guerra civil" deritxon idaztia artu dogu.

Idazti onetan kanje dalakoaren eŕudunak nortzuk diran agertu eta Gipuzkoa'tik bialdutako emakumiekaz paxistak egin eben okerkeria erakusten da.

Euzkadi'ko Gobernuak zindoki lan dagi bere zuzentasun eta ontasuna agertzen.

GEIAGO

Beasain'dik 65 aur eta emakume bialdu paxistar ankeŕak. 22 erail eŕian.-Atxilotzeak ugari.-Karlataŕak eta falange'taŕak alkaŕen goŕotoz eta alkar ikusi-eziñez.

Baita beriz ere. Beasain'daŕak ordaingoak. Otsaila'k 28 irurogeita lau auŕ eta emakume. Paxistaŕen ankeŕak. Egoibar'en bide-erdian utsi ta... oŕa or ain zuek ere zuen bidea. Tipi-tapa, neka soiñean, eta ikara barnean Eibar'ko guda-oiñera. Eta bidean... dun... dun... dun... estu ta laŕi.

* * *

Beasain'en dago oŕei urtetik oŕei tamazaspigaŕen urteraiñoko gizonik. Falange edo ostontzekoetan izenak eman-erazo ta guda-oiñera. Ostontzekoak, lan eta lan. Ordaiña? Duan. Emakumeak esku-lotuta. Lanik ez. Ufitasuna eŕian. Dirua exkax.

* * *

Paxistaŕak bildurgaŕi. 22 erail eŕian. Villafranca'n 16.

Igaŕtua sendikoak, bilbotaŕak, eŕukaŕien. Aita ta bi seme il. Igaŕtua'taŕ Joseba Koldobika paxistaŕak eŕira sartzerakoan, euren aurka, zaurituta gelditu. Lau ilabete ta erdi ondoren, osatuta gero, atxilotu egin zuten eta Iruña'ra eraman. Azke, baiña, Iruña'n. Geroago... beste asko bezela, nora da? Ez da agiri.

Emaztea, biotza zati, agintariengana. —Non da? Erantzunaren ixila dan gaŕatza!

Iruña'ra? Uŕunegi. Mutiloa inguruan belbiletik atera, soiñekoak erantzi ta... igesi sasi gaiñeko txoria. Izkiŕu-otsa inguruetan eta odol jarioz soiña bide-basterean.

Beste igartua bat Beasain'en paxistaŕen aurka ziaŕduala il.

Emaztea ta ama itunik gerostik, samiñaren gaŕatza da euren bizi-laguna. Beasain'en bizi dira.

Agintariak emaztearі: Ez estutu, andrea. Zuk ez dezu eŕurik eta geuk lagunduko dizugu. Alemania'ra ez bada, Italia'ra bialduko ditugu zure semeak. Ondo zainduko dituzte an eta antxe egingo dute euren burua gizon.

Emazteak, kolkoa leŕ-zorian, ezetz eta ezetz; Bilbo'ra nai zuala.

—Bilbo'ra? Ez zaiztez txoroa izan. Bilbo'n ezin al izango dezu bizi ere eta ez dezu an etxekorik aurkituko.

Naikoa lan ondoren, loŕtu du oŕatio ere berea.

* * *

22 erail! Basapizti alenak! Zertarako aitatu eriotz negaŕgaŕiok? Nabarmenkeri gordiñenetakoak dira. Lumari atzera eragitekoak. Noŕk dizute zuei barkatuko?

Apaizak ere eŕukaŕi dira Beasain'en. Pedro izeneko apaiz jaun bat eŕitik atera, atzera ekaŕi, geroxeago beŕiz eraman... Gauŕ ez dakite nondik nora dan.

Beasain'go bildurgaŕienak Argiñano'taŕ Epifani, Mendia'taŕ Augustin, Ezkiega ta Fermin Perez dira. Amaika salatutakoa azkenengo au! Karlataŕen Guda-Artezkaritzakoak dira guztiok.

Diotenez, Donostia'n, emakume bateri zai zegokioten noiz auŕ-egiteko gero eriotza lepoatzeko.

Beste emakume bat ere, Donostia'n, bederatzi urteko semearekin batera, uritik atera ta geroztik ez da euren aztaŕenik. Il egin ote dituzten-edo...

Aurerago gexozain jaŕdun zuten guztiai moztu diote ilen Beasain'en. Neskatilak ziran guztiak, bat bakaŕa ezkondua.

Atxilotu ere ugari egin dituzte.

Etxetan ondamendia.

Karlista ta falangetaŕen aŕtean goŕotoa ta alkaŕ-ikusi-eziña.

Bilbo laiste aŕtuko dutela. Oŕatio, atzera egin-beaŕik ba'litz, emakumeak eta aurak jaŕiko genukez guda-oiñean aurenengo.

Sir Samuel Hoare'ren jardunak

Inglateŕa itxasoetako eŕegin izan nayean, orañarte lez. - Egingo dituzan guda - ontzi baŕiak. - Itxasontziok orañartekorik auŕeratuenak izango dira.-Beste izpaŕak.

Londres.—Itxaso-Zaingoko lenengo lord Samuel Hoare jaunak, legetxean azalpenak egin ditu. Itxasoetan nagusi izaten jaŕaitu dagian, Inglateŕa'k uste onetan eta uŕengoan zer dirutza eralgiko dauan agertu dau.

Guztiz, 5.000.000 libra esterlina izango da, eta igaz baño asko geyago da ori.

Dirutza ori, ostera, zerga bidez ez da guztia batuko. Eŕiak, zergatan bi miloe ta erdi gitxiago ordainduko ditu aurten, baŕian uŕengo urteetan geyago ere ordaindu beaŕ izatea, ba leiteke.

"Jorge V" gudontziaren tayuzkoak iru baŕi egingo ditu Inglateŕa'k orain noiz amaituko daukazanen ganera. Egazkin eramantzale bi, zazpi kruzeru amasei destroyer, zazpi itxaspeko, lau mina aussle eta laguntzaleak sei.

Ontzi txikiagoak geyago be egingo ditu, eta euren aŕtean, Txina'ko eŕekaetan ibilteko kañoneru bi.

Itxaso zaingoko dirutza jasoteko beste arlo bat, gizonak dira, uŕengo urterako itxas guda gizonak 112.000 izango dira-ta.

Alogeretan, 8.659.230 libra eralgiko dira. Gai eta bariztaupenak egiteko, 11 miloe. Ontziak obetu eta atonduteko, suaga ta artileri gauzetarako, 9 miloe.

Kañoe suagak uŕi eta eskas samar izan ditu oraingoan Inglateŕa'k. Su gai gitxi izan daualako, batzuk diñoenez, ez ei zan gauza izan orain urtebete Italia'ri agiñak erakusteko, Etiopia'ko auziazko galespen edo santziñoiak zirala estadu bion aŕtean sortu zan asaŕe aldian.

Gudontzien arloetan, itxas-egazkiñak be geituko dira, 516.000 libra eralgiaz, eta onen lana oso onuratsua daiteke ontzien laguntasunean.

Itxaso-atzaŕa izan zanean, Londres'en euren gudontzi saletan kruzeru ugari izatea ebela beñena aldeztu eroien ingelesak. Lege onen bidez, 21 kruzeru geyago egin leikiez eta destroyer taldeak sei.

Itxas-tunbena ez dau Inglateŕa'k oindiño bayeztu. Alemania eta Rusia'gazko artuemonak amaitu aŕte, baña Batzaŕ aretako oar eta aolkuak ontzak aŕtuak izango dira.

Amalau atzekoak izango dira kañoien kalibre nagusiak, akorazuetan. Lastef baño lastefago ibiliko e-lira ontziok, eta azkenengo eta oberengo erakoak izango dira.

Euzkadi egazkin alde

Datoŕen igandez, goizeko amaika ta erdietan erestaldi jai edeŕa egingo da Buenos Aires antzokian.

Egileor'daŕ Dugen abeslari ospatsua izango da abeslari eta Galdos'daŕ A. jaunak lagun egingo dautso.

EGITARAUA

Lenengo ekitaldia

"Euzko Abendearen Ereserkija". Zabala'ren.
"Adelaide", Beethoven.en
"O del mio amato ben", Donaudy'ren.
"Triestesse", Chopin'en.
"L'Arlesiana", Cilea'ren.
"Andresa Chenier", Giordano'ren.

Bigaŕen ekitaldia

"Arte arosak", Uruñuela'ren.
"Mendi Mendijan", Usandizaga'ren.
"Basetxia", Guridi'ren.
"Katalin", X. X.'en.
"Ene Abeŕi laztana", X. X.'en.
"Olseña zara", Santesteban'en.
"El roble de Gernika", erzila'ren.

MUETA GUSTIETAKO KRISTALAK
GORBEA Y C.ª
41'gn. Alameda de San Mamés txaidian
11447 Ufutizkiña

"Eguna"ren 17818
URUTIZKIÑA

Donosti Buru Batzaŕa

"Kizkitza,'ren (G. B.) idaz-lanak argitaratzeko Donosti-Buru-Batzaŕ, asmoa beterik zabaldu ta dagon arpidearen jaŕaipena.

Oraindañokoa	1.930
Belaustegigoitia'taŕ Pantzeska	100
Lizundia'taŕ J. Andoni ...	10
Markinaŕ bat	25
Aitzol salako gudari bat	25
Aitzol salako gudari bat	10
Oraindaño laufleko	2.100

EGUNA JEL

Lgo. urtia | 55'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. epaila 5'gna. barikua | 15 eunen

Neure abeŕia maite dot,
eta berari aurka dagitson
edozer goŕotau biar dot.
Arana Goiri

AZKENENGO IZPARRAK

Austria'n nazitaŕen aurkako agerpenak

Schuching'ek gogorkiro eskatuko ditu bere eskubidientzako lotsa ta azkatasuna.-Laboristak eztira izkillu geitzearen aurkako.-Rumania'n naste ta zarata ugari.-Españar guda oñetako izparrak.

AURKARIK EZ

Londres. — Izkilu geitzea biaŕ biaŕekua dala ikusita, batez bere alemanen jokaeraak olantxe eskatuten daulako, laboristen alderdiak erabagi dau izkilu geitzerako legeatik aurkarik ez egitea. Aldeko autarkirik (boturik) be eztautse baña emongo.

NASTEA RUMANIA'N

Bucarest. — Igarotako egunetan Ikastola Nagusiko Buruari egin eutsenaten ondoren zarata eta naste ugari dabil efi onetan. Beŕogetamaŕ lagun detenidu dira, eraillketa oŕetan parte artu eben ustez. Euron artian Ikasle Batza'ko lendakaria dago. Jaun au paxisten alderdikidia da.

Paxisten Batza'ko lendakariak agertu dau Ikasle Batza'k estabela parterik eusi eraillketa oŕetan.

Eŕitaŕen artean artegatasun eta keska ugari dabilalako ikastola gustiak safatzia erabagi dau gobernuak. Eŕia baketa arte eztira zabalduko.

ROMA'RA DUA

Londres. — "Daily Herald" izpaŕingiak diñoanez Schuching kanzilerra dua eta Mussolini'ri ikustaldi bat egin ondoren datoŕen asie erdian biurtuko dala.

Ust, danetik Schuching'en gogorkiro eta indaŕ gustiagaz eskatu dau bere altasuna ezagutzia eta Frantze'ren eta Inglateŕa'ren laguntasuna eskatuko dau, alemanen azpikari eta naste-gurien aurka jokatuteko.

ALEGIÑAK-ALEGIN ALPEŔIK

Madrid—Tajo ego-aldeko luŕaldian geroago ta adoretsuago eŕizalien gudaketa oldarketia. Erkaldaŕ taldiak, ibai beste aldera igaro dira, eta emen suagadakaz gogoŕtu euran egokera baŕijak.

Eŕizaliak daruan auŕerakada begikuan Toledo'k Talavera'gaz daben kutza austeko bidia darue, ostera arerijuak, Toledo ego aldetik Caceres'era duan eŕejia ausi gura dau, onela eŕizaliak euran agintza gustijak beteten dabez, eta abegi onaz bete be.

* * *

Andujar.—Alcala la Real onduko luŕaldian gogoŕtxu gudatu da. Eŕizaliak aupada bat egin eben urijan onduan arerijuak dabezan luŕalde garantzitsuak lortu guran. Gudaketa gogoŕ bat ondoren lortu ebezan eŕizaliak eurak aginduta eukazan luŕalde oŕek. Bein lortuta eurok sendotuten ekin dautse. Lopera'n eta Villa del Rio'n baketasun osuan igaro da, eguna.

* * *

Valencia.—Havas Izpaŕ zabaltzale etxiak daben izpaŕkarijak izketaldi bat egitia lortu dau, Alvarez del Vayo jaunagaz. Alvarez del Vayo jaunak ostera bat egin dau egun gitxi dala Madrid'era, eta izketaldi oŕetan esan eutsonetik Madrid'ko urija iñok artu ezindakua dala ezan eban. Bardin gudarozte bidez, bata kementasunaz be. Ez ei-dago Madrid'eri ziŕi egiteko oldarketarik. Madrid'ko urija ba, ziguŕtade osuan agiri ei-da.

MIÑA JO TA 24 LAGUN IL

Valencia.—Atzo goixian, Cabo de Culera auŕian petriliodun itxas-ontzi batek miña jo eban.

Onek etara eban zunbadotsa uŕunetik entzun ei-zan. Itxas-ontzija osoz ausi zan. Itxas-ontzi oŕek ogeta lau gixon ebazan, ta eurotatik bat bakaŕik geratu zan bixijaz.

Au be, oso gaizki dago. Eta Valencia'ra ekaŕi eben. Itxas-ontzijak, 3,200 upelkin edo tonelada gasolina eruazan.

GUDA-OÑETAN

Barcelona. — Pirenaico ingurutan artu-emon gustijak geratu dira ebagita eduŕan eŕuz.

Carlos Marx sail inguruan, gudaŕi bat aurkeztu da.

Beste guda-oñetan ezta ixan gauza baŕirik.

Atzoko eguna euzko zaingoetan

Leizaola eta Toyos burukideak itzuli dira.-Euzko-jaurlaritzak batzaŕa gaur.-Mutikoak eta neskatoak etxe bereziak izango ditue, zainduak izan daitezan.-Janari banaketea. Peseta bateko diruak eldu.-Izenbako eskutitzak.-Lur lanak nola egin.

Lendakaritza

OROAGINDUA

Zuluaga Aldekoa'taŕ Jaima eta Afatibel Ugariza'taŕ Koldobika, eraillak izan ditezela erabaki du Euzkadi'ko Eŕi-auzitegiak. Bere lege gizon aldezleak, barkapen eskean etoŕiak ditugu ordea. Eta gaiztetsiak izan diranen eruak zer-nola ikusiak eta epaituak izan diran ikusterakoan, legeetatik irten gabe, bigunxeago epaituak izan zitezkeala oartu gera. Neke beltzena ezartzeko astungaŕi berezirik ez dala uste bait-degu. Ortaz, eten-gabean jarduten dan Zuzentza Salari aditu ondoren eta bere argibidea egokia deritzaigularik, Jaurlaritzaren on-iritziz, auxe agintzen det:

Zuluaga Aldekoa'taŕ Jaima'ri eta Afatibel Ugariza'taŕ Koldobika'ri barkapena opa zaie. Eraiitze ordez, ufengo malako nekea jasan bezate.

Bilbao'n, 1937'gn. epañak 3.

Letzaola ta Toyos jaunak itzuli

Atzo, Valencia aldetik Leizaola ta Toyos burukideak eldu ziran, eta bereala lendakari jauna agurtuten izan ziran

Aldasoro jauna Valencia'ra

Atzo bertan Aldasoro jauna Valencia'rantz urten zan, arañegun adirazi genduanez.

Gauŕ, batzaŕa

Valencia'tik eldu baŕi diran burukideak euren arloen eta alegiñen baŕi azaldu dagien, gauŕ batzaŕa izango euzko Gobernuak.

Paxisten igesi

Logroño'tik aldetako lagun bi eldu ziran atzo Baranbio'ra, goizean, paxisten menpetik igezka.

Ageŕaldiak

Lendakaria atzo ikertu ebenak, ona: Euzkadi'ko komisario nagusi baŕia, Orueta jauna; Ortueta'taŕ Anakelda eta Gracia euzko-burukidea, sendatua.

Gizarte-Laguntza

Gaztientzat etxeak

Orniketa-Alkartasun Batzak iŕazki bat biali izan dau Zaingo onetara, gipuzkoaŕ neskatiłak eta euzkotaŕ guztiak berebat aŕisku eta galpidietałik zaindu daitezan, etxe berezi batzuk eratu dagi azala zaingo oneri eskatuaz. Idazki ori pozik jaso izan dogu, iñoan idazkaŕi nagusiak, bañan zorionen oŕelako zerbait egiteko asmotan giñan, eta lan egiten asiak ere bai.

Etxe egoki bat artua dogu oŕetarakoxe, eta Campo de Volantin aldean dago. Lanean diardue bertan oŕetarako egokiro antolatuteko.

Irurogei bat neskatorentzat lekua izango da bertan, eta garbitasun arauz, jasean izango dabe. Sei lagunentzako gelak, lan-tokiak, bustialdi lekuak, eta abaŕ, eratsu izateko lanetan asi dira.

Mutikorentzako bere, Begoña aldean beste etxe bat artuteko asmotan gara, olako lekuaren beaŕ diran mutikoak ere ba-dira-ta.

Frantze'ra doiakezan umeak

Ango osasun ministruak emon dan baimena umeok Oloron'era joan daitezan.

Emokunak

Eguaztenez artu ziran emokunak, 1.384,6 laurleko izan diŕa, Zaingo onen premiñetarako.

Lagintza

Burukidea itzuli

Zaingo onetako burukidea Toyos jauna, atzo eldu zan Valencia aldetik, arazu askozaz alegiñetan asi ondoren.

Lanbakoen alde

Lanbakoen alde jokatzeko batzordea atzo izentau zan, Langintza-Zaingo'aren aginduz.

Lendakaŕi, Ibero'taŕ Gergori jauna da; langilien aldetikoak, S. T. V., U. G. T. eta C. N. T.'ko alderkide bana.

Ugazaben izenez, Anitua'taŕ Joseba, Retolaza'taŕ Joseba eta Otalora jauna izentau ditue.

Osasun-zaingoa

Esnea beaŕ daben gexoak

Langela ontara gauŕ eldu beaŕ daben gexoak, 12.200 zenbakitik 12.500 aztekoak diŕa.

Saleroskeła ta Orniketa

Uŕengo astelenez, banaketea

Astelenean, janari banaketa izango da, eta era onetan izan bere.

Aŕoza, 250 gramo buruko.
Garbantzua, 500 gramo buruko.
Txaŕi-okelea, 100 gramo buruko.
Txokolatea, libreta bat, buruko.

Atzo esan genduanez, eta gitxi ba' da ere, aragia be bananduko da oraingoan.

Txokolate gitxt

Janari Orniketa'ko zuzendariak, uŕengo auxe esan euskun eŕiari adierazi dagiogun.

Txokolateaŕi zurkiro begiratu begioe, baŕirik egiteko gairik ez dogun artean banaketarik ezta izango-in.

Gexoak-eta dituenak, kontuz ibili beitez ba, ta argibide au jaso begie, gero, eskariz etoŕi eztakiguzan.

Alabaña, gai oŕek lasteŕ izango ditugulakoa dogu, alegiñik ugari ondoren, onuratsuak izango ditugula uste dogu-ta.

Ontzia diruz eta patataz

"Sendeja" ontzia eldu zan atzo kvera, eta peseta bateko diruak, amairu tonelada ekaŕi ditu, eta patataz 1.500, janari-banaketarako.

Izenbako salakuntza

Zornotza'tik bialitako idazki bat artu dogu Zaingo onetan, eta gauza naiko aztunatzazko salakuntzea dagi bertan. Izenperik, firmarik eztauka ordea, eta izen baga ezin aintzat artu.

Idazki oŕen egileak jakin begi, bere izena eskutitz oŕetan ipiñi aŕen, ez dauala ezer okeŕik izango, diñoan salakuntza ori egiz danentz jakiteko alegin eta azterpenak ixilik bai ixilik egingo ditugulako.

Nekazaritza

Arduraduŕak esandakoa

Nardiz jaunarekin egin gendun atzo itz.

Guda-oiñ inguruetan dauden basetxetako eŕentak ordaintzea atzeratzeko asmoak erabakj artu dirala, esan zigun Nardiz jaunak.

Gogo-lantze Zaingoan ere ba-zala nekazariarekiko beste arlo bat—gaiñeratu zigun--eta laisteŕ erabakiko dutela uzte duala. Soloetako lanarekikoa da arlo ori eta nekazarientzat emon beaŕ diran aginduarekikoa. Arlo oren idazki-agiria izpaŕingi. Nekazari-Batza ta bazkun guztietara bialduko dutela, esan zigun Nardiz jaunak. Eta orduan, guztiak aztertu dezatela ta iñon akatsik bilatu ezkero, gastigatu, lenbailen eta auŕez zuzendu dagigun. Gauzarik egokiena egitea da gure naia. Ez degu, geureari bakaŕik begira, aginduak eta aginduak eŕatu. Gerokoa ere uŕatu nai degu ta ortarako danen iritzia bete. Nor-nairek bialdu lezake bere iritzia, zuzena ta bidezkoa.

Nekazari-bazkun, batza, alkartasun eta kideko arazo batzuk ere aitatu zituan, baiña, orain ziaztatzea auŕeregi sartzea litzakela-ta, beste baterako utzi zuan.

Ikeŕak

Beldaŕain'daŕ Dima, Galdames'ko endorea, Mena baŕutiko Udala; Astigaŕaga'taŕ Danel, Erandio'ko Nekazari-Bazkuna, Trucios'ko Udala, Atutxa'taŕ Toma, Guevara'taŕ Luka, Nuere jauna, Goiti'taŕ Pantzeska, Portugalete'ko Nekazari-batzordea, S. R. I., Abanto ta Zierbana'ko Udala, Rusia'ko Enbajada.

"Gudari" aldizkingi baŕiaren urteke ria iragaŕteko egin dan mafazki bikaña. ¿Nok egin daun? ¿Nor izan go zan ba, "Nik" mafazgile tremena izan ezik? Zorionak abeŕkide.
"Gudari", datofen astartian urtengo da txaldera, ez araŕegun esaten geban lez larunbatez, ba iraŕkolako lanak, egon bi atzeratzera biartu dauz bere egileak.

MIÑA BAT LEŔTU

Madrid. — Madrid'eko Guda-Zaingoak atzo eguerdiz emandako izpaŕak onetxek dira:

Erkal aldeko indaŕak atzera jaurti dabe arerijuaren auŕerakada gurako oldarketia. Onek euren auŕeko luŕaldian balu biaŕ ixan dabe. Ciudad Universitaria'n eŕizaliak jaŕitako miña batzuk "putz" egin eben, eta betuta aundijak eragin asaldarijari. Jarama'ko guda-oñetan ezta ixan ezetariko gudaketarik.

ASALDARIA UTSUNE-BIŁA

Madrid.—Atzo eguerdiz Miaja gudalburuak, izpaŕkarijak egin eutsen ikertaldijan, auxe esan eutsen: Asaldarijak igarotako gabian El Pardo eta Ciudad Universitaria'n oldarketa bat egin eben.

Iŕi-baŕeka esan eutsen Miaja jaunak izpaŕkariai: Asaldarijak makalen dagon tokijen bat auŕkitu gura dabe, bañan danak "poŕot" egiten diete.

ARERIOA ATZERAKA

Brihuega.—Guadalajara guda-oñetan baŕiz asi da gudakelia. Gudaketa onek eztau indaŕ aundirik, bañan, erkaldaŕak nolakoak diran bai erakutsi. Atzo goixian eŕizaliak ainbat eskuzko aupaketak egin dabez, onen eskuzko aupadak ziŕikatu dauz arerijuak eta ezin ixan dabe besterik, auŕenengo dabezan egonlekuak bertan-bera itxi, eta atzera gokolarakoa artzea baño. Eŕizalien guda-oñak oriide obatu egin diŕa. Eŕizalien kementasun egikixunak arerijoaren egotoki uŕerarte eruan dauz eta emen adore osuagaz jaurtiten ekin dautse arerijuaren egokeŕaŕi eskuzko zunbaketa aŕizkotsubak.

GABEAN MADRID'EN

Madrid.—Atzo gabeko bederatzi ta erdijetan emon dabezan guda-izpaŕ berezijak auxe diñue:

Madrid-inguruan, beti lez, arerijuen gurako oldarketa gustijak autsa eginda geratu diŕa ainbat betuta ixanaz. Arerijuak gogoŕ jo eban guda-oñetara suizkiluz baita suizkilnazkar eta suagadakaz ere. Bañan oneri, merezi eban lez erantzun yakon. Eztira geratuten geure artera igarobaz arerijuan ondotik anka egindako eŕizaliak. Era bardiñean mintzatuten dira onek danak arerioa adore guztia galduta dago.

Beste guda-oñetan... Ezetariko barik.

"The Times"en izpaŕak

MADRID'EN

Otsaila'ko 22'gaŕeneko "Times" izpaŕingiak Madrid'ko guda-oiñetako beŕi ze karen. Ona emen zer zion:

"Madrid.—Madrid ta Aranjuez bitaŕtean oraintsu amaŕ egun, paxistaŕ asaldariak Sortalderuntz erasoka asi ziran. Asieran, oŕatio ere, zerbait lortu zuten. Geroztik amaika gora bera ikusi dute basterak. Urtariła'ko lenengotan Galicia'ko bidean gertatu zana: paxistaŕok asieran ondo, erdipurdi gero ta geldik eta kikilduta azkenean. Eguna joan, eguna etoŕi gordeleŕkuak gogoŕtu eta guda-oiñetan jendea ugaritu.

Jatekoa eraman-ekaŕi ibiltzeko, eŕkal daŕ agintariak egokitasun geiago dituzte. Valencia'tik dala, Madrid'tik dala, beŕi lortzen da zerbait; paxistaŕak baiña alogiñak alegin ezin dute biderik saŕatu.

Oso osorik dago oraindik Valencia'rako bidea; oso-osorik oraindik ango zubi guztiak, naiz ta bideko azken zatian, Madrid'era saŕtzerakoan, zearka apuŕ bat egin beaŕa izan."